

I'go Sailla

MEKENA'RI

Gaia: Askotarikoak, dakigunez, gizonaren joera ta agO-xuri. Eder du aunitzek aipua; au gOizale duzu, ura soro ta landak pozten dute; ark gizartea du maite, onek soin-atsegiñak; urliari kutun ba'zaio gudaritza, aizea sandiari. Nik, ordea, begiko dut Olerki lirkarra; batez ere zuk, Mekena, ederretsia baldin bada.

Maecertas atavis...

Oi, Mekena! errege Odoljatorriko,
ene igesleku bigun ta dirai deduzko:
leiaz opa du askok goitar autsa astindu,
gurpil goriz orobat mugarik ez iku
5 eta garaitz- abarrez nausitu alairik,
lur-jabeak, Jainko lez, gora eraikirik.
Ikus or Ori, pozik, bera iru aintz-deduz
gOretsi naiz, zaldun-sail txepela ba'dakus.
Au ere zoritsua, Libi-larrain oro
10 aletegi barnean bil ba'du osoro.
Aiteen lurra, Ordea, gOldetu nai duna,
edO Atako antzo diru zaletua,
nekez jarriko duzu, itxastar bildurti,
Kipri-egur ontzian Mirtoo urez bidazti.
15 Iker uñeri buruzko negu aizeen izu,
saltzailleak pakezkO lurra gorets oi du;
baiña Ontzi ausiak berriz ondurikan,
itxasora itzul da iñOiz, ezeuki asalketan.
Ez du ark erdeiñu oi ardo zar ontzirik,
20 eztare eguneangO jan edan ederrik,
naiz burbiz ezepean soin-lasai etzanik
naiz ur doneen sorburu ondoan, pakerik.

- Eder ditute askok dunbots, turut-adar,
 gudarozte ta gerla, amaentzat negar.
- 25 Gau ozkarbitan dirau otzez eiztariak,
 -emazte beratza aantzi aren oroimenak
 so ba'dute zakar esangiñak,
 edo sare nasiak eten basaurdeak.
 Ni, berriz, untz-ostoaak -kopet argi sari-
- 30 goitar Jainko artean, oi! naute nahasi;
 Bakarrera naroa bas-oian leituak,
 bai Ninpa ta Satir'en dantz-jolas ariñak,
 Euterpe'k ezpa-dit txirulik gaiazten,
 ta Polimnia'k Lesbi-lira ba'dit ozentzen.
- 35 Lirikar Olerkari baltsan sar ba'naizu,
 izarrak joko ditut bekoki ausartsu.

Oarrak. - 1. Mekena zeritzaion erromatar zaldun au, August
 Kaiser'en kutuna izan zan; jatorriz toskain erregeen odolezko, zen-
 bait edertiren babestzaille jator. - 7. Iru dedu, edo erromatarren
 arteko omenik aundienekin. - 9. Libi'ko alorrak oso joriak ziran,
 batez ere garitan. - 12. Atalo, Pergamo'ko errege txit aberatsa. - 14.
 Txipre'ko egurra ornen zan onena itxas-ontziak egiteko. - 22. Antxi-
 ñakoak, gauza donetzat zeuzkaten iturriak. - 33. Euterpe, bederatzi
 musaetako bat. - 34. Beste musa bat.

CARMINUM

Liber Primus

Carmen I

Ad Maecenatem

- Maecenas atavis edite regibus,
 O et praesidium et dulce decus meum,
 Sunt, quos curriculo pulverem Olympicum
 Colegisse iuvat, metaque fervidis
- 5 Evitata rotis palmaque nobilis
 Terrarum dominos evehit ad Deos.
 Hunc, si mobilium turba Quiritium
 Certat tergeminis tollere honoribus;
 Illum, si proprio condidit horreo,

- 10 Quidquid de Lybicus verritur areis.
 Gaudentem patriOs findere sarculo
 Agros, Attalicis conditionibus
 Nunquam dimoveas, ut trabe Cypria
 Myrtoum pavidus nauta secet mare.
- 15 Luctantem Icariis fluctibus Africum
 Mercator metuens, Otium et Oppidi
 Laudat rura sui; mox reficit rates
 Quassas, indocilis pauperiem pati.
 Est, qui nec veteris pocula Massici,
- 20 Nec partem solidO demere de die
 Spernit, nunc viridi membra sub arbuto
 Stratus, nunc ad aquae lene caput sacrae,
 MultOs castra iuvant, et lituo tubae
 Permixtus sOnitus, bellaque matribus
- 25 Detestata. Manet sub Iove frigido
 Venator, tenerae cOniugis immemor,
 Seu visa est catulis cerca fidelibus,
 Seu rupit teretes Marsus aper plagas.
 Me dOctarum ederae praemia frOntium
- 30 Dis miscent superis: me gelidum nemus
 Nympharumque leves cum Satyris chori
 Secernunt populo: si neque tibias
 Euterpe cOhibet, nec POLyhymnia
 Lesboum refugit tendere barbiton.
- 35 Quodsi me lyricis vatibus inseris,
 Sublime feriam sidera vertice.

II

AUGUST KAISARI

Gaia: JupiterJainkoenAitak, Juli Kaiser'en eriOtza dala-ta, gordin zigortu du Erroma, elur, kazkabar eta tximist.oiñaztarriz.Bigarren ugoldea uste zuten batzuk. Bildurgarriak, nOski, Tiber ibaiaren oldarra ta anai arteko gudu. NOri eskatu laguntza? Nork ordaindu egin zan gaiztakeria? Zatoz zu, Apol, gu Onez ateratzera; edo zu, Venus; edO zu, Marte. Azkenez, Augustii dei, Merkuri irudian, dagokion asperkuntza artu dezan. Ezpadi itzuli, beratu baizik, zerura; bebil lurrean, garaitzez garaitze, arerioen menderatzaille.

Iam satis terris...

Onezkero, elur ta txingor beltzik aski
Jainkoen Aitak digu lurrera bidali,
ta toki deunak eskui goriz gezíturík
Uria utzi du beldurrik.

5 Erriak ere bai izu jar ditu, Pirre bera,
arrigarriz, dardartu zun aldi gaiztoa
itzuli ez dedin; ots, Proteu menditara
eli oroz jun zanekoa.

Eun arrai mOta orra tink zumar buruan,
10 lenbizi uso-abi ziran erpiñetan;
bai ta igeri zegiten zelai edetuan,
orein uzuak aunetan.

Tiber gOrria ikusi genun, txit biotz-jausi,
Etruskar ertzetatik lazki biurtuta,
15 Errege'ren oroiak nai zitula suntsi,
Vesta'ren elizak bota.

Nasai ta zabal dabil -maite garrak joa?-
11 i negartiaren apentzaille lerdea;
ezker aldeko ibarrez arroputz dijoa,
20 Tzeu'k aintz eman ez arren.

Gaztedí gurasoen erruz gutxituak,
anai arteko gudan, sarri entzun oi du
iñoizka ditutela ezpatak zorrOztu,
Persi'tarren aurka eñak.

25 Zein Jainkori erriak deadar egingo
amil-bera dijoan Aberri'ren alde?
Nolako bertsoz Neskatz onak saiatuko?
Zein oiuz Vesta'ri galde?

Jainkoen Aitak, nori iraiñen ordaiña
30 egotzík? Zu, Apol azti, azkenik,
erdu, OtOi, gurera, laiño zuri-urdiña
besagaiñez duzularik.

Edo obeki, zatoz zu, Erikina irrikor,
egazka dituzuna biran Jolas, Maite,
35 Naiz enda utzi ta illobak begi errukior
gura ba'dituzu gorde.

Zatoz zu, Marte, naiko jolasez ase,
eder bait zaizkizu ots, ardail ta babeski;
40 ta Mauri oiñezkoren betondo errea,
etsai odoltsuri aitzi.

Edo zu, Mai argiren, oi! seme egoduna,
Kaisar'en apentzaille deitu aurrezean,
eta, antza aldatu, gazteren jarduna
bete ba'daizu lurrean.

45 Belu zoaz zerura; guztiz luzaroan,
emen zaude Kirin'en erriakin pozik;
aize zakarrak ere ez zaitza eroan,
gure gaitzez setaturik.

On bekizkizu emen garaipen aundiak,
50 Aita ta Lendakari deitzea noiznairik.
Ez laga, gure Kaisar, Medotar etsaiak,
zigorge, zaldiz gudatzerik.

Oarrak. - 7. Itxas-idi zaiña. - 13. Toskana'ko itxasoak, aizez puztuta, berezko bidetik jaurti zitun ibaiko urak. - 15. Numa Ponpili'ren jauregia, Tiber ezker aldera.- 16. Vesta, Ope ta Saturno'ren alaba, Numa Ponpili'k jauretzea jaso ziona. - 18. Erromul Erroma irasi zunaren ama. - 20. Jupiter Jainkoen Aitak ez omen zun nai Kaisar'en eriotza iñork apentzerik. - 32. Erikina, Venus'i Sikili'ko Erix mendi donetik zetorkion izena. - 37. Marte, Erromul'en aita. - 41. Erromul'en beste izen bat.

Carmen II

AD AUGUSTUM CAESAREM

Iam satis terris nivis atque dirae
Grandinis misit Pater, et rubente
Dextera sacras iaculatus arces
Terruit urbem,

5 Terruit gentes, grave ne rediret
 Saeculum Pyrrhae, nova monstra questae,
 omne quum Proteus pecus egit altos
 Visere montes,
 Piscium et summa genus haesit ulmo,
 10 Nota quae sedes fuerat columbis,
 Et superiecto pavidas natarunt
 Aequore damae.
 Vidimus flavum Tiberim, retortis
 Litore Etrusco violenter undis,
 15 Ire deiectum monumenta regis.
 Templaque Vestae,
 Iliae dum se nimium querenti
 Iactat ultorem, vagus et sinistra
 Labitur ripa, Iove non probante,
 20 uxorius amnis.
 Audiet cives acuisse ferrum,
 Quo graves Persas melius perirent;
 Audiet pugnas vitio parentum
 Rara iuventus.
 25 Quem vocet Divum populos ruentis
 Imperi rebus? prece qua fatigent
 Virgines sanctas minus audentem
 Carmina Vestam?
 Cui dabit partes scelus expiandi
 30 Iupiter? Tandem venias, precamur,
 Nube candentes humeros emictus
 Augur Apollo;
 Sive tu mavis, Erycina ridens,
 Quam locus circumvolat et Cupido;
 35 Sive neglectum genus et nepotes
 Respicias, auctor,
 Heu! nimis Iongo satiate ludo,
 Quem iuvat clamor galeaeque leves,
 Acer et Marsi peditis cruentum
 40 **Vultus in hostem;**
 Sive mutatu iuvenem figura
 Ales in terris imitatis, almae
 Filius Maiae, patiens vocari
 Caesaris ultor;
 45 Serus in caelum redeas, diuque
 Laetus intersis populo Quirini,
 Neve te nostris vitiis iniquum
 OciOr aura

Tollat; hic magnos potius triumphOs,
50 Hic ames dici Pater atque Princeps,
Neu sinas Medos equitare inultos
Te duce, Caesar.

III

BERGILI DARAMAN ONTZIARI

Gala: Atenai'ra doa Bergili; eta Olerkariak oles dagio hura daraman antziari, arren, onez eramateko eskaturik; galzori ezkuz betea bait du ur-azpia. Bide batez, mingots maiseatu ta astintzen du gizasemeen ausardia. Naiz-ta gebendua izan, arako dugu joera, ara goaz Lasai.

Sic te Diva potens...

Elene'n bi anai, izar distikorrak
Txipre'ko Erregin, adorez kementsu,
ta aizeen aita orrek -Yapigo ez beste,
aize oro jarriz beretsu-.

5 Zuzendu zazute, ontzi bikaiñena;
arek bait darama Vergili guria.
Itzul, otoi, onez Atika mugatiz,
zaindu ene bizitz-erdia!

Galtzairuzkoa zun bularra, iru biraz,
10 ontzi-gain itxaso len-ibilli zanak;
etzun ez izutu Ipar'ek Ego'kin
dagien burruka gordiñak;

Ezta Iade illunak, ez Notu erreak,
au baita Adria'ko jaube ta nausi;
15 orain jaika, orain bare, erabil oi ditu
naitara itxas-ertzak nasi.

Zein erio-maillak izutu dezake
begi-txau ba'dakus ugerlariak,
itxas arrotua ta Akrozeraunia'n
20 ur-azpiko arri dongiak?

Lur eta kresal-zelai banatu eziñak
alper Jainko zurrak ebaki zituan,
ontzi beltzak Orain be ur-ertz iku-gaitzak
jo ba'ditua nai gartsuan.

25 Gizakumea, gain-zale te oldarkor,
egipen galaziz amil-bera dna.
Japet-enda ausartak, iruzur gaiztoan,
sar zun gizartean goi-sua.

Zeru-biztokitik sua ostutzean,
30 lurra eror zan laru-itzalpean,
ta sukar-talde berri ta izuz bete;
erio, len urrats-nagi, orain dabil
azkarki, egundo ez beste.

Dedal, gizonari eman ez egatsez,
35 goi-utsune zear egazka saia nai;
Herkul-lanak jarein du Akerento
Gaur ilkorrak zernaiz dira gni.

Tenteltzar, zerua bera irítxi gura;
Jupiter onari ez diogu uzten,
40 gaiztakeri aundiz, bere iñar zakarrak
guri egotz gabe puskatzen.

Oarrah: - 1. KastOr ta Polux, itxastarren izar on. - Venus, batez ere, Txipre'n zan gurtua. - 2. EoI, Jupiter'en seme, gogo setati ta naspillen irudi. - 3. Yapiga lurraldeko aizea, on ta egoki Grezi'ra itxaso dagitenentzat. - 7. Akai errialdea, Atcnai buru zuda. - 13. Taur bekokian bOst sar-irtenetan euri kaltegarriak bialdu oi ditue. - 19. Epir'ko muturra, gaur Kimera mendia deritxoan; Akrozeraunia, arek eta onck madarikatua izan da sarri, bertan gertatu oi ziran ontziondatze maiz egiñakaitik. - 27. Japeto'ren enda, edo Prometeujainkoai ostu ta sua gizasemeen artean sartu zuena,. - 35. Dedal, argizaizko egoz eguratsez ibilli zana. - 36.1-Ierkuren alegiñak.

Carmen III

AD VIRGILIUM

Sic te diva potens Cypri,
Sic fratres Helenae, lucida sidera
Ventorumque regar pater,
Obstrictis aliis praeter Iapyga,
5 Navis, quae tibi creditum
Debes Virgilium finibus Atticis,
Reddas incolumen, precor,
Et serves animae dimidium meae.
robur et aes triplex
10 Circa pectus erat, qui fragilem truci
Commisit pelago ratem
Primus, nec timuit praecipitem Africum
Decertantem Aquilonibus,
Nec tristes Hyades, nec rabiem Noti;
15 Quo non arbiter hadriae
Maior, tollere seu ponere vultu freta.
Quem mortis timuit gradum,
Qui rectis oculis monstra natantia,
Qui vidit mare turgidum et
20 infames scopulos alta Ceraunia?
Nequidquam Deus abscidit
Prudens Oceano dissociabili
Terras, si tamen impiae
Non tangrnda rates transiliunt vada.
25 Audax omnia perpeti
Gens humana per vetitum nefas.
Audax iapeti genus
Ignem fraude mala gentibus intulit.
Post ignem aetheria domo
30 Subductum Macies et nova Febrium
Terris incubuit cohors;
Semotique prius tarda necessitas
Leti corripuit gradum.
Expertus vacuum Daedalus aera
35 Pennis non homini datis.
Perrupit Acheronta Hercules labor.
Nil mortalibus arduum est;
Caelum ipsum petimus stultitia, neque
Per nostrum patimur scelus
40 Iracunda Ioven ponere fulmina.

IV

L. SEXTI'RI

Gaia: Udaberria iritxi zaigu, Orati'k ederki margoztua. Biziaren laburpena gogorazten dio bere adiskide L. Sexti'ri, eta gaur ere askok uste duenez eskuetan daukagun pizka orri guna aterateko diotsa. Udaberria, erromatarren artean, aundikiro ospatzen zan, urtearen lenengoetan, otsaillan asita. Itxastarren lanak aurreko azaroaren iruan amaitu oi ziran eta epaillaren lenengoetan asi. Venus'i eskiñitakoa zan apirila; onek jagon eta zaintzen zitun erromatarren dantzak. L. Sexti, aurrena Ponpei'ren alderdiko ta gero Augusten kutun, Kontsula izan zan Kristo aurreko 23'garren urtean.

Solvitur acris hiems...

Udaberria itzuli eta aizeak leunki
negu zakarra doa lazatuz guriki,
ta ontzi leortuak narrastuz urera.

Abereak ez daude okulluan alai,
5 ezta ere lugiña sutondoan lasai,
ez lanak dagoneko izotz-zama zuriz.

Venus Kitaretarra, illargia jaikiz,
or dantza-zuzendari. Ta Esker liraiñak
Ninfaekin, oin neurti, lurra dute joten,
10 Vulkan erreke artean sua bizi-azten
Kiklopeen sutegia kee-multzotan jarten.

Orain da ordu mirtuz buruak jazteko,
edo lur leunak eman liliz apaintzeko.
Paun'i ointxe ilketak eskaiñi ordua,
15 nai ba'du, artxo bat ta, naiago ba'luke,
oian itzaltsuan. auntz-eme txit rnalgua.

Oin berdiñez oi du iku eriak gaziak
apalen txabolak naiz nausi-jauregiak.
Oi Sexti doatsua! Bizitz laburraren
20 gurpillak ez digu, ez, uzten biziaren
urte luzeko usterik guregan loratzen.

Laster dituzu estuntz gaua ta alegizko
il-itzalak, Pluton'en egoitza landerra.

25 An, sartuz gero, ez da txiri egiterik,
ardo-erregetzari ortz-erakusterik,
ez duzu miretsiko Lizida samurra,
naiz-ta gaur gaztedia artaz bizi sutan,
naiz neskatz garbiak be gorbiztuak izan.

Carmen IV

AD L. SEXTIUM

Solvitur acris hiems grata vice veris et Favoni,
Trahuntque siccas machinae carinas.
Ac neque iam stabulis gaudet pecus, aut arator igni;
Nec prata canis albicant pruinis.
5 Iam Cytherea choros ducit Venus, imminente Luna;
Iunctaeque Nymphis Gratiae decentes
Alterno terram quatiunt pede, dum graves Cyclopum
Vulcanus ardens urit officinas.
Nunc decet aut viridi nitidum caput impedire myrto,
10 Aut flore, terrae quem ferunt solutae.
Nunc et in umbrosis Fauno decet inmolare lucis,
Seu poscat agria, sive malit haedo.
Pallida Mors aequo pulsat pede pauperum tabernas,
Regumque turres. O beate Sexti,
15 Vitae summa brevis spem nos vetat inchoare longam.
Iam te premet nox, fabulaeque Manes,
Et domus exilis Plutonia; quo simul mearis,
Nec regna vini sortiēre talis,
Nec tenerum Lycidam mirabere, quo calet iuventus
20 Nunc omnis, et mox virgines tepebunt.

Oarrak. - 1. Fabonio deitu aizeak, sortaldetik zetorren, eta otsaillaren asieran jo oi zuen. - 7. Venus'ek, Ziterea zeritzan ugar-tean artzen zuen gurtza. -11. Horati'k uste zuen, Kiklopeen sutegiak udaberrian pizten zirela, berriz ere lanari ekiteko; nakazariak eta itxas-gizonak bezela. - 17. Aintziñakoen artean oitura zanez, atea joten zuten barne sartu aurretik, sartzeko baimena eskatuz edo. -25. Zotzean izentatua zan oturuntzetan ardao-zerbitzaria, eta onek erabakitzen zuen maikide bakoitzak zenbat kopa edan bear zituan; baita abestu ta alkar-izketak zuzendu bear zituenak ere.

PIRRA'RI

Gaia: Oso ederki asarre dagio Horati'k bere maitale zintzo-ezari gozo-gozo eiotako olerkitxo onetan. Zergatik ote? Berriz irabaztearren bear bada. Antziñakoen artean oitura au jagOn oi zan: itxasoan naiz gizartean ezbear edo tirabira bat izan zuenak ol aundi bat margozten zuen, galzori zeudela onik atera zuenaren oroiz noski, gerokoen biotzak erruki-azteko edo. Azkenez ol margoztu ori Neptuno'ren jauretxean gordetzen zuten.

Quis multa gracilis te...

Zein mutil leun pospolin larrosaz koroituk
gantzuki jariotan estutzen zuk, Pirra,
leize ezkotu barne? Norentzat lau, zabar
txortatzen duzu zeure urrezko uledia?

5 Ai!, noizbait negartuko zeure fede ta Urtzi
naspillak! eta nola, oiez ta mamorti,
itxasoa ikusiko aize-zakar naasi!

Ark ikusko orain leun gozatzen zaitunak,
aizearen ezjakin, maltzur zai duzunak,
10 beti aske ta kutun! Oiek bai kankiñak!

Zuk itsutuak, ez bait zaitue ezaguna,
Niketz, orma doneak eta eskain-olak,
lekuko ditut, ortxe daude zintzilik,
itxas jainko dongari jantzi urtuk emanik.

Oarrak. - 1. Erromatarrak, Horati'ren garaian, larrosa ostoak erabilten zituzten eurrez. Jan-edan eta oturuntzetanbaitikbat. Keleopatra'k Antonio'ri opatu zion orritsan, onek zauta aretoa larrosa-osto ugari-ko oin-zapi lodiz estaltzea nai izan zuen; naien ziran larrosak Mileto'tik, Asia Txiki'tik ekarriak izan oi ziran, zuriak nunbait. Itali'n ere asko landu oi zituzten landara oiek, Kanpania'n, eta Preneste inguruetan bereziki. - 3. Italia'n esku antzetsuz egiñik, lilitegi ta atsegin-baratzetan alegia, asko egoten ziran leize antzeko etxetxoak, aize ta giro berotik babesteko, itxura danez.

Carmen V

Ad PYRRHAM

Quis multa gracilis te puer in rosa
Perfusus liquidis urguet odoribus
Grato, Pyrrha, sub antro?
Cui flavam religas comam
5 Simplex munditiis? Heu, quoties fidem
Mutatosque Deos flebit, et aspera
Nigris aequora ventis
Emirabitur insolens,
Qui nunc te fruitur credulus aurea;
10 Qui semper vacuum, semper amabilem
Sperat, nescius aurae
Fallacis. Miseri quibus
Intentata nites! Me tabula sacer
Votiva palies indicat uvida
15 Suspensisse potenti
Vestimenta maris Deo.

VI

AGRIPA'RI

Gaia: Agripa, J. K. aurretik 63-12'garrenean bizi izan zan; Kaiser August'en laguna ta laguntzaille guduan eta erri-gorabera askotan. 19'gn. urtean antza, Kantauri itxas-aldeko guztieri gaiñak arturik, bustarri latza leporatu nai izan zien. L. Vari Errupo olerkaria, Bergilli'ren adiskidea, "Thyeste" deritzan negar-antzerkia ta "De morte Caesaris" poema garaia idatzi zituna. Vari onek bai -dio Horati'k- goraiatuko ditu, o Agripa! zure egiñen arrigarriak; zuk itxaso ta legor egiñak oro, olermen bizitan jasoko ditu. Nik, ordea, tikia naiz-ta, zer egin nezake? Gai xee ta utsaletan jardun noski, jatordu ta maite-miñak gatzatuz.

Scriberis Vario fortis...

Vari'k meandar kantan urretxindor danak,
zail ta etsai-garaille goretsiko zaitu:
gudari azkorrak, zu buru, ur-lur egiñak
mintzo giar bizitan aipatuko ditu.

5 Nik orreri, Agripa!, ez diot ekin nai;
ez Paleu-semearen su ta gibel-miña,
ez Ulise izurtsuak gezal-gain egiña,
ez Pelope-nea, ez ditut nik kantagai.

Kaxkarra naiz, ta ezin saia gai gurenez.
10 Zer al dezaket ene liratxo zurbillez?
Musa agintzailleak ez dit aurki lagatzen
zu ta Kaisar -biok goi- zatarki azaltzen.

Nork jaso duinki Marte burdiñez jantzia,
edo MediOn troiar autsez beltzitua?
15 Nork goratu oraindik Tideu'ren semea,
Pala lagun, jainkoen kide biurtua?

Nik oturuntzat ditut soil-soil abestuko;
baita neskatx zangarren liskar-otsak ere,
mutillez jarein naita jardunik atz-tinko,
20 nai su gabe, nai, oi lez, mee-igikor erre.

Oarrah. -1. Poesi omerotarra. Meun, gaur Lidi, Asia Txiki'ko uria; Esmirna du urrean, ta, diotenez, ura ornen zan Omer'en seaska. -14. Medion, Kerete'ko gizurena, Moloa'ren seme, Idomeneu'ren eskutari. - 15. Diomene'k, Tideu'ren semeak, Pala'k lagunduta, Venus eta Marte zauritu zitun; augatik, aiekin neurtuta burrukarako gai dugu.

Carmen VI

AD AGRIPPAM

Scriberis Vario fortis hostium
Victor, Maeonii carminis aliti,
Quam rem cumque ferox navibus aut equis
Miles te duce gesserit.

5 Nos, Agrippa, neque haec dicere, nec gravera
Pelidae stomachum cedere nescii,
Nec cursus duplicis per mare Ulixei
Nec saevam Pelopis domum.

Conamur, tenues grandia: dum pudor
10 Imbellisque lyrae Musa potens vetat
Laudes egregii Caesaris et mas
Culpa deterrere ingeni.

Quis Martem tunica tectum adamantina
Digne scripserit? aut pulvere Troio
15 Nigrum Merionem? aut ope Palladis
Tydiden superis parem?

Nos convivias, nos proelia virginum
Strictis in iuvenes unguibus acrium
Cantamus, vacui, sive quid urimur,
Non praeter solitum leves.

VII

MANUTZI PLANKU'RI

Gata: Planku'k, gizarteko zalapart eta erriketaz nazkatua, Itali'tik at joan nai du arrotz. Horati'k ez du ori maite, ta ezetz diotsa, olakorik ez egiteko. Ba-dirala, Grezi'n eta abar, uri ospez astunak. Tibur ez ote olako? Antxe dauzka, bai, berak ere lurralde joriak; bijoa ara, ta itxaron adu aldakorraren itzulia, goiak ez bait dira beti euritan ageri oi. Teukru'k ere orrelaxe egin zun beñola, aitaren asarre.sumiñetik igeska zebillelarik: urrutirako asmoa izan arren, etzan arako bidea artu, ots, atzerakoa.

Laudabunt alii clareen...

Gorets bitzate batzuk Mitilen, bai Rodas argi,
bai Epean, bai Korint-oin, bi itxas-gain jarria,
bai Tebas Bako'z aundi, bai Delpos Apol'en uri,
Baita Tenpe ere, Tesali'ko lur-sail guria.

5 Ba-dira, batzuk Pala aratzaren iri gurena
bertso luzeetan jalki-naiean dabiltzanak,
ta aren kopeta edozein ostoz jos-nai dutenak.
Askok, Juno'ren omenez, Argos, zaldiz ona,
goraltzen dute; berdin Mikena aberatsa.

10 Nik ez dut eder Lakedemoni zeinbat, jasane,
ezta Larisa ibar narotan txit apatza;
bai baiña Albune, leiza iskanbiltsuz betea dana,
ta Ani ixurkoi ta Tibur'ko baso ta lats artegak,
aunitz sagasti intz joriz busti oi dituztenak.

15 Noto bareak sarri uxatzen odei goibela,
goiak ez dira beti agertzen euri dutela:

20 orla zuk ere Planku zugurra, otoi, gomazu,
ta ardo goxoaz bizitz-itun ta lanak aitu,
nai gudadoki berein ikurdiz dizdizak euki,
nai zure Tibur'ko itzal gurian lasai bizi.

Salamina ta aita utziz Teukro'k iges eitean,
ardoz ezkotu lertxun-ostoz oi zun soiña jantzi,
itz egiñikan lagun aulei ots batean:
"Edozein zorien aita baiño, nunbait obea;
25 nekekide la lagun maiteak, arat goaz gu;
ez etsi, Teukro, buru ta nausi, zuekin baita;
Apol'ek, ziñez, lur-sail jorian zidan opatu
geroko baten Salamina bai, ezbaizko uria.
Oi gizaki-sail enekin sarri lor miñagoa
30 limurituok: agurtu orain arretak ardoz:
biar berriro asiko dugu lan aundia".

Oarrak. - 1. Erromatarren agindupean, Rodas ta Mitilene izan ziran aberritik iges egin bear zutenen gordeleku begikoenak, Agripa beiñola Mitilene'ra baztertu zan, Tiberi Rodas'era. - 2. Egeu ta Jonik itxas-arteak. - 3. Atenai. - 9. Mikená, Agamenon'en sorterri ta iñoiz Grezi'ko uririk nagusiena. - 11. Gaur Larisa-Kremasli. - 13. Ots aundikoa zan artzulo au, Bergili'k, Laktantzi'k eta gaiñerako tatitar idazlariak baitik bat, maiz goraiapatua. - 21. Salamina, gaur Koluri, Egeu itxasoko ugarte ta uri, Atika ta Penepoleso bitartean. Telamon zan ango errege, Ajax eta Teukro'ren aita. Oneik anai biok Troia'ra joan ziran bata bestea gabe etzirala etxera biurtuko zin egiñik; baiña ango ondamendi ostean, Ajax'ek bere burua il zun, eta Teukro'ri aberrira itzultzeran, akar egin zion aitak gordintsu, anai gabe zeto-rralako.

Carmen VII

AD MUNATIUM PLANCUM

Laudabunt alii claram Rhodom, aut Mitylenen,
Aut Epheson, bimarisve Corinthi
Moenia, vel Baccho Thebas, vel Apolline Delphos
Insignes, aut Thessala Tempe.
5 Sunt, quibus unum opus est, intactae Palladis arces
Carmine perpetuo celebrare,
Indeque decerptam fronti praeponere olivam,
Plurimus in Junonis honorem

- 10 Aptum dicit equis Argos ditiesque Mycenas.
 Me nec tam patiens Lacedaemon,
 Nec tam Larissae percussit campus opimae,
 Quam domus Albunae resonantis,
 Et praeceps Anio, ac Tiburni lucus, et uda
 Mobilibus pomaria rivis.
 15 Albus ut obscuro deterget nubila caelo
 Saepe Notus, neque parturit imbres
 Perpetuos; sic tu sapiens finire memento
 Tristitiam vitaeque labores
 20 Molli, Planee, mero; seu te fulgentia signis
 Castra tenent, seu densa tenebit
 Tiburis umbra tui. Teucer Salamina patremque
 Quum fugeret, tamen uda Lyaeo
 Tempora populea fertur vinxisse corona,
 Sic tristes adfatus amicos;
 25 Quo nos cumque melior Fortuna parente,
 Ibimus, O socii comitesque.
 Nil desperandum Teucro duce et auspice Teucro;
 Certus enim promisit Apollo,
 Arnbiguam tellure nova Salamina futuram.
 30 O fortes, peioraque passi
 Mecum saepe viri, nunc vino pellite curas;
 Cras ingens iterabimus aequor.

VIII

LIDE'RI

Gaia: Sibari gaztea txepel itzuli zaigu; ez du nai gudu-zelai ta kaperdietara irten, ez da zaldiko jardunaren zale; ez izkillurik jantzi nai, ez birla edo agarik egotzi; ez Tiber'ko ur ozkirrian gorputzik busti. Oso beleskata limuri egin da emakumezkoen artean. Augatik, ez dio jipoia gaizki astintzen olerkariak.

Lidia, dic per omnes...

Esaidazu, oi Lide, urtzitarrakaitik,
 zer dala-ta maitez gal nai duzu Sibari?
 Len auts-euzki zaleak gudu-zelaia utzi?

Zergaitik lagunekin ez dabil zaldi-gain,
 5 edo prantses aoak sarrantx latz ez ezi?
 Zergatik Tiber larua ukutzeko izuti?

Suge-odol antzo du saiesten olio;
zergatik iskillu-orbanez besoak,
len birlaz nai azkonez maiz azkarra zanak?

10 Zergatik gordetzen da, Teti'ren semea
gorde oi zanez, Troia'ko galkera aurrexean,
giz-antzak sarraskira eramanez zezan?

Oarrak. - 5. Prantzi'ko zaldia oso ezikaitz ziran. - 7. Olio-gantzukiz igurtziten ziran erromatarrak, edozein burruka-saio aurretik. - 10. Tetis, Akil'en ama, Nereu itxas jainko zarraren alaba. - 11. Omer osteko asela zarrak dionez, Akil'ek andrazko jantzia gorde zun bere burua Eskiro'n, Likomene'n alabaen artean, gudara ez joatearren.

Carmen VIII

AD LYDLAM

Lydia dic, per omnes
Te deos oro, Sybarin cur properas amando
Perdere? cur apricum
Oderit campum, patiens pulveris atque solis?
5 Cur neque militaris
Inter aequales equitat, Gallica nec lupatis
Temperat ora frenis?
Cur timet flavum Tiberim tangere? cur olivum
Sanguine viperino
10 Cautivus vitat? neque iam livida gestat armis
Brachia, saepe disco,
Saepe trans finem iaculo nobilis expedito?
Quid latet, ut marinae
Filium dicunt Thetidis sub lacrimosa Troiae
15 Funera, ne virilis
Cultus in caedem et Lycies proriperet catervas?

IX

TALIARKU'RI

Gata: Irudiz sorturiko norbaiti zuzendua duzu oda au. Gerkar izenak "Orrits-bakaldun" nai du esan. Negu-biotza dalarik ere, badira sukaldean atsegin gozoak. Biarkoak zer ekarri galdeka, ez gaitezen geiegi zurbildu.

Vides ut alta stet...

Ez al dakusu Sorakte zuri elur aunditan,
eta oianak jadanik arminduta lorretan,
eta izotz estuan nola
ibaiak ezin joanda?

5 Uxa otza, mukur aundiz beterik suetea;
baita atera, oi Taliark, sarri bezin ernea,
lau urteko ardaoa,
Sabina-uriñez ondua.

10 Utz jainkoei gaiñekoak; gesak borbor artatik,
aize burrukalariak eratx zituztenetik,
ezta dardar nekostarik,
ezta eze ametz zarrik.

Ez nekatu biarkoz zer gerta-miñez, al danik;
ar zoriak lemaikezun zernaiko egunetik;
15 zaputz ez utzi gazterik
maite biguin ta dantzarik.

Soil-aro gogaikarria gaur urruti bait duzu;
orain, ordu autuetan, Marte-zelaira maiztu,
eder zutzat enparantzak,
20 eder gau-jardute ixillak.

Billa orain zokondoan kuku neskatx lotsorra,
salatzen dun kizkur mea ta aren maite-gaillua;
ken atzetik ereztuna,
itxuraz baizik eztuna.

Oarrak. - 1. Sorakte, faliskotarren mendia, Erroma'tik ikusten zana. - 4. Urin, gider biko ontzia, dolaretan erabilli oi dana; Sabina zeritzaion eskualdean egiten omen zituzten auetariko onenak.

Carmen IX

AD THALLARCHUM

Vides, ut alta stet nive candidum
Soracte, nec iam sustineant onus
Silvae laborantes, geluque
Flumina constiterint acuto.

5 Dissolve frigus, ligna super foco
Large reponens; atque benignius
Deprome quadrimum Sabina,
O Thaliarche, merum diota.

Permitte Divis cetera: qui simul
10 Stravere ventos aequore fervido
Deproeliantes, nac cupressi
Nec veteres agintantur orni.

Quid sit futurum tras, fuge quarere; et
Quem Fors dierum cumque dabit, lucro
15 Adpone; nec dulces amores
Sperne puer, neque tu choreas;

Donec virenti canities abest
Morosa. Nunc et Campus et areae,
Lenesque sub noctem susurri
20 Composita repetantur hora;

Nunc et latentis proditor intimo
Gratus puellae risus ab angulo,
Pignusque dereptum lacertis,
Aut digito male pertinaci.

X

MERKURI'RI

Gaia: Jainko aundi orren gorapenez idatzia nunbait. Merkuri bait dugu itz-jariO ta esan ederraren aita. Onez gaiñera, joko ta jolasak ere, mezu ta lapurretakin batera; baiña batez ere olerkirako lira sortu zulako dugu ots aundiko, eta basati zan gizona adeitsu biurtu zuelako. Noiz idatzi ote zun oda au? Merkuri'ren omen edo goratzarreko jairen baten bear bada? Ba-liteke. Ala olerkariaren goiargi-aldiko jardun utsa ote? Jakin ez ziur.

Mercuri, facunde nepos Atlantis...

Oi Merkuri, Atlante'ren billoba txit eletsu,
len-gizon anker uzua zuk bait zenun neurritu,
Zuhur ta nare biurtuz itz-jario indarrez,
ta saio-zelai bikaiñez.

5 Zuri deskintzaut, Tzeu zendi ta jaikoen mezudun,
zuri lira makurraren aitakanta bigun;
trebe maltzurra bait zera, jolaska ta ixilpeko,
zer-nai ta ura ostutzeko.

10 Parrez lertu zan bein Apol, gezi-ontzi gabea,
zuk artzain itxura arturik ebatsi bei-taldea
abots sendorik zemaik.

15 Piriamo aberatsak ere, Ilion uztean,
Atereu-semeak lauso zitun, zure zaipean,
eta maltzurki saiestu bai Tesal'go su garaiak,
bai Troia'ko kapar-etsaiak.

20 Zuk aulki alaietan oi dituzu jar-erazi
gogo deunak, eta urrezko aal-makillaz bereizi
itzal-talde me-ariña: eder goietan jainkoei
eder su-lezan bekoei.

Oarrak. - 1. Atlante' ren billoba, aren ama Maia'ren etorkiz ta
belaunez. - 4. Gorputz-saio ta iñarkunez, edertasuna iritxi oi
dugu. - 6. Aita, asmatzaille; bein turtu-maskor bat aurkitu zun
Merkuri'k eta oneri eriak ezarriaz, jogaillu edo tresna osotu. Lirak
iru ari zeuzkan bakarrik, gitarra edo kitarak, ordea, zazpiraiño.

Carmen X

AD MERCURIUM

Mercuri, facunde nepos Atlantis,
Qui feros cultus hominum recetum
Voce formasti catus, et decorae
More palaestrae;

5 Te canam, magni Iovis et Deorum
Nuntium curvaeque lyrae parentem;
Callidum, quicquid placuit, iocoso
Condere fructo.

TE, bo^yes olim nisi reddidisses
10 Per dolum amotas, puerum minaci
Voce dum terret, viduus pharetra
Risit Apollo.

Quin et Atridas, duce te, superbos,
Ilio dives Priamus relicto,
15 Thessalosque ignes et iniqua Troiae
Castra fefellit.

Tu pias laetis animas reponis
Sedibus, virgaque levem coerces
Aurea turbam, superis Deorum
20 Gratus et imis.

XI

LEUKONOE'RI

Gaia: Leukonoe, izen emana dugu antza, Siñeskerara makurrak ziran sortaldekoak; izar-igarkizun eta indarretan uste betea zeukaten Erroma'n, baitik bat emakumezkoak. Uzteko diotsa Horati'k oietariko bati etortzekoa. Ez ote lar gaurkoa? Gure biziak ba-ditu egunik egun bere atsegina eta alderdi pozkorrak. "Zagoz gaurko -dio Orati'k-, utz biarkoa". Ar dezagun gaur jaio lorea, ez bait dakigu biar jaiotzekoaren berri.

Tu ne quaesieris, scire nefas...

Ez eizu jakin nai -ez baita on-, Leukonoe,
Jainkoak zuri ta neri zotz egindako oboe,
ez galde Babilon-atzeak. Datorrena ar, obe!
5 Aunitz negu Tzeu'k emanak? Ala au atzena ote,
Tirren itxasok aurreko aitzak oldartzen dituna?
Zur zaitez, irazi ardoak, eta itxaron luzea
ebaki aldi laburrez. Guk itz-ala, iges doa
adin bekaizti. Atzi gaur, ta ez uste geroa.

Oarrak. - 3. Babilon urian bizi ziran geienbat kaldaitarrak, eta jauretsi ortzi-gorputzak jauresten zituzten. Izar jakintza, beraz, oso zabal zegoan aien artean, izar zenbakera, einka, atza ta abar, kaldaitarren jakituri berezia dugu. - 6. Aintziñakoen ardao lodiak, ots, uitan onduak, elurrez beteriko metal-irazkian irazi bear ziran.

Carmen XI

AD LEUCONOEN

Tu ne quaesieris, scire nefas, quem mihi, quem tibi
Finem Di dederint, Leuconoe; nec Babylonios
Tentaris numeros. Ut melius, quicquid erit, pati!
Seu plures hiemes, seu tribuit Iupiter ultimam,
5 Quae nunc oppositis debilitat pumicibus mare
Tyrrhenum. Sapias, vina liges, et spatio brevi
Spem longam reseces. Dum loquimur, fugerit invida
Aetas. Carpe diem, quam minimum credula postero.

XII

AUGUSTI

Gala: Jainkoak, giz-urenak eta Erroma'ko beste gizaseme leiñargi ta ospe aundiko batzuk gorai patu ondoren, Kaisar Augusten gorat-zarrea ari du azkenik. Pindaro'ren gizaz diardu asieran, eta zein jainko edo zein gizuren goretsiko dun, galdetzen du olerkariak. Jupiter dugu jainkoetan lenen; onen ondorengo batzuk: Palas, Bak, Diana, Poibu. Gero, gizon arnas eundiko ta erromatar garaiak erpintzen ditu, batez ere Julitarren sendia, Markel gaztea ta August. Tzeu'ri dagokio goietako jaurlaritzaz; August'i, Tzeu'ren mendean, lurreko agintea.

Quem virum aut beroa...

Zein gizon, zein gudari zur artu, oi Klio!
liraz edo txirula zorrotz goraltzeko?
Nungo jainkoren izen bir-kantako pozkor
abotsaren antzak
5 nai Elikon'go mutur eze-itzaltsuan,
nai-ta Pindo gain edo Emo zurdatsuan?
Oian auek jarai bait zuten, barbar utsez,
Orpeu'ren kantua;
amagandiko antziz ibai txit lasterrak
10 tink-eraz oi zituna, baita aize bizkorrak,
adeitsu erakarriz, kantagai goxotan,
arte adikorrak.
Ta aurrena zer esan nik, duin aiñako goraz,
gizon ta jainko jaurri oi dituan Aitaz,

5 Oraindik ez sen ez margo,
ez dut toki onik; masail- bera darit
maitezko ari ixilkorra,
ene barne-sua ezalduz, txit zorra.

 Dirakit lepo zuriak
10 narda ba'dizkitzu ardozko liskarrak;
naiz gazte beroren batek
agin-aztar iraunkorrez beztu zure ezpaiñak.

 Jakin nai baldin ba'duzu,
ez uste betikoz maiteko zaitunik
15 Venu'k gOxo-muiña jar zun
pa leunak kutsutu zituna, zatarrrik.

 Eun aldiz zoritsuago
estun etengabez loturik daudenak;
ots, egun aundi aurretik
20 espaz maitasuna ausi ez dutenak!

Oarrak. - 2. Larrosazko lepegain, au da, ederra; ezko edo argizagiak bi gauza ditu: zuritiesuna ta dirdira. - 5. Gizonak, sumindu ezkerro, ez du senik, ez margorik; abere antzo jarri oi da. - 10. Erromatar gazte artean maiz sortzen ziran esarre ta iskanbillak ardao geiegi edanetik.

Carmen XIII

AD LYDIAM

Cum tu, Lydia, Telephi
Cervicem roseam, cerea Telephi
Laudas brachia, vae! meum
Fervens difficili bile tumet iecur.

5 Tunc nec mens, nec color
Certa sede manet: humor et in genas
Furtim labitur, arguens,
Quam lentis penitus macerer ignibus.

Uror, seu tibi candidos
10 Turparunt humeros immodicae mero
Rixae; sive puer furens
Impressit memorem dente labris notam.

Non, si me satis audias,
Speres perpetuum, dulcia barbare
15 Laedentem oscula, quae Venus
Quinta parte sui nectaris imbuit.

Felices ter et amplius,
Quos irrupta tenet copula, *nec* malis
20 Divulsus querimoniis
Suprema citius solvet amor die.

XIV

ERKALARI

Gaia: Antza-irudizko oda. Erromatarrak naiko gudu ta eztabaida izan dituzte anai artean, naikoa ekaitz eta aize-eraso gordin ta zakar. Berriren berri arako gertatu? Ezpei olakorik egin Laterri-ontziak; ez du arraunik, masta gabe ta endaitz erdi-autsi, zer egingo uin-besoe-tan? Oialak ere urratuta, jainkorik ez nori oles egin. Iges begi aizeen kolkotik eta Ziklade-ugarte arriskutsutik.

O navis, referent in mare...

Oi ontzi!, itxasora berriz ere uin-zear?
Ene! zer dagizu? Zaude kain geldi.
Ez ote dakusu ongi
arraun-uts saiets-aldea?
5 Ego-aize-jasak masta du autsia,
ta ez el dantzuzu ardatzen adia?
Nola, ba, lokarri gabe
kresal-erauntsia zaildu?
Zapi osorik ez, ez jaunik deitzeko,
10 berriz zoritxarpe, zer zuk, ai! egingo?
Naiz izan POntO'ko lerra,
oian ospetsuko seme,
naiz-ta zeure endako ta izenak arrotu
itxastar uzkurak txopa margoztutan
15 ez du itxaro. Zur zabiltz zu,
aize-par nai ez ba'duzu.
Len lor gogaikarri, orain kezka ta nai,
ez gutxi, zatzaidan orrek! Alde, otoi,
Ziklade argietako
20 olatu nastetatik.

Oarrak. - 9. Ez jaun edo jainkorik, Apol, Kastor, Polux edo besteren bat, deitu-orduan laguntza emateko. Aintziñako ontziak txopetan eraman oi zituzten onako jainkoen irudiak, ezaugarritzat eta laguntza-zurrian. - 11. Ponto basoetako ler-zura zan onena ontzigiñarakO. - 13. Erromatarrak, beuren gardiz, Marte ta Venus zituzten sortzaille. - 19. Gizaldiak zear, Ziklade-ugartea ureztatzen zun itxasoa galzoriz betea zan oso. Argitsua batez ere, ango mendiak atxuriz aberats ziralako.

XIV

AD REMPUBLICAM

O navis, eferent in mare te novi
Fluctus? O quid agis? fortiter occupa
Portum. Nonne vides, ut
Nudum remigio latus,
5 Et malus celeri saucius Africo
Antennaeque gemant? ac sine funibus
Vix durare carinae
Possint imperiosius
Aequor? Nun tibi sunt integra lintea
10 Non Di, quos iterum pressa voces malo;
Quamvis Pontica pinus,
Silvae filia nobilis,
Iactes et genus et nomen inutile,
Nil pictis timidus navita puppibus
15 Fidit. Tu, nisi ventis
Debes ludibrium, cave.
Nuper sollicitum quae mihi taedium,
Nunc desiderium, curaque non levis,
Interfusa nitentes
20 Vites aequora Cycladas.

XV

NEREU'REN IRAGARPENA

Gaia: Paris, Elene ostuta, Troia'rentzun doa itxasoz. Nereu'k, berriz, aizeak geldi-azo ta, iragarle zurrean, diotsa: "Palas ez duzu lo, bide ertzak ondotxo artuak bai ditu. Zangar eta aunitz doaiz ornitua uste izan arren, ez zuk larregi entzin gaitasun oietan; gezi ta aizta-makilletatik iges ta ere, narras irauliko zaitute azkenik. Ulise duzu

erasotzaille, Nestor, Teukro, Merion; nola basauntza otsoagandik itzuri? Akil'ek bai luzatuko du zure ondarena, baiña, ala ere, gerkarrak kiskalduko dute Troia". Olerkariak, Paris ta Elene irudi-pean, Antoni ta Keleopatra ezkonberriak gordetzen ditu nunbait. Antoni, bere emaztearekin iges, Peloponeso'n geratu zan eta andik, gudarozte aundi batekin, Itali'ra sartu nai zuen, Keleopatra Erroma'ko erregiña egiñik. Olerkariak, ostera, ezetz diotsa ez egiteko olako zorakeririk, erri arteko gudarik sor ez zedin.

Pastor cum traheret per freta...

Idatar ontzietan Elena arrotza
artzaiak zeramala gaizto itxaso zear,
Nereu'k barerik dauzko aize ego-ariñak,
iragarririk adu txar:

5 "Damurik daramazu urira, iñoiz Grezi
gudari askoz eman-aziko duzuna,
zure eztaiz ta Priamu'ren erreñu zarra
autsi naita dabiltzuna.

Al!, zenbat izerdi-pats zaldi naiz zaldidun!
10 dardanitar jendeentzat zenbat illet-erre!
Pala'k jada prest ditu bere buru-oskol,
ikurdi, gurdi ta aserre.

Alperrik zuk, Venu'ren babespean uzu,
andrai bertsu pozkorrak dizkiezu onduko,
15 buru-kasket orraztu ta kitara legun;
alperrik urrun-aziko.

Aizta-makil zamatsu, Keret-gezi zorrotz,
gudari-barbail ta Aiaz ariña jarraika;
beranduxe, baiña, autsez, ai! ezainduko duzu
20 buruko illedi izundua!

Ez dakusu Laerte-semea, zure enda
ondatzaille, ta Nestor. Pili'ko bakaldun!
Zure kaltez dabilta Teukro salamindar
t'Estenel jakitun.

25 Edo, bearrezkoan, zaldizai azkarra,
Merion zuk ezagun. Ta Tideu'ren seme
azkarra, bere aita baiño zuarrago,
orra zure billa aserre.

Ibarrez bestaldetik otsoa ikustean,
30 belarra aitzurik, iges doan orein antzu,
igesi zoakioz zu ere, estu ta uzkur,
t'ori ez ari abindu!

Akil'en ontzidiak Ilion'en eguna
luzatuko ta prigitar emakumeena.
35 Negu labur ondoan, baiña, gerkar amak
kiskail Troia'ko egoitzak!".

Oarrak. - 1. Ida Prigi'ko mendi bat zan, eta ango zura egokia nunbait itxas-ontziak egiteko. 2. Paris, Priamo ta Ekuba'ren semea, ardi-zain ibillia zenun Ida mendian. - 3. Itxaso ta Gaia'ren aurra, berrogei ta amar Nereitarren aita; geienik Egeu itxaspean bizi izan zan eta beste itxas jainkoen antzera, iragarpen eta antz-aldatze doaiz ornidua. - 17. Kerete'ko ugartean azten ziran kañaberakin egiñiko geziak, oso gogorrak ziran. - 26. Dumene, Tideu'ren semea. - 32. Elene'ri, noski, zangar itza ari baitzion eman.

Carmen XV

NEREI VATICINIUM DE EXCIDIO TROIAE

Pastor quum traheret per freta navibus
Idaeis Helenen perfidus hospitam,
Ingrato celeres obruit otio
 Ventos, ut caneret fera.
5 Nereus fata: "Mala ducis avi domum,
 Quam multo repetet Graecia milite,
 Coniurata tuas rumpere nuptias
 Et regnum Priami vetus.
Eheu, quantus equis, quantus adest viris
10 Sudor! quanta moves funera Dardanae
 Genti! iam galeam Pallas et aegida
 Currusque et rabiem parat.
Nequidquam, Veneris praesidio ferox,
 Pactes caesariem, grataque feminis
15 Imbelli cithara carmina divides;
 Nequidquam thalamo graves.
Hastas, et calami spicula Gnosii
 Vitabis, strepitumque, et celerem sequi
 Aiacem: tamen, heu, serus adulteros
20 Crinas pulvere collines.

Non Laertiaden, exitium tuae
 Gentis, non Pylum Nestora respicis?
 Urgent impavidi et Salaminus
 Teucer, te Sthenelus sciens
 25 Pugnae, sive opus est imperitare equis,
 Non auriga piger. Merionen quoque
 Nosces. Ecce furit te reperire atrox
 Tydides, melior patre;
 Quem tu, cervus uti vellis in altera
 30 Visum parte lupum graminis immemor,
 Sublimi fugies mollis anhelitu;
 Non hoc pollicitus tuae,
 Iracunda diem proferet Ilio
 MatrOnisque Phrygum classis Achillei;
 35 Post certas hiemes uret Achaius
 Ignis Pergameas domos".

XVI

ZURI-ALDIA

Gaia: Oda ontan Orati'k, emandako itza jaten du, ots, esana ezezten du. Sumifialdi batean, andere gazte bat iraindu du janbo-bertso mergatzak idatziz. Jitezko asarreak dula dio erre guztia, au baita griñetan gaizto ta izugarriena, ta kalterik andienak dakarzkiguna. Bide ortatik ez jarraitzeko diotsa apalki, aantzi dazala, albait, egindako belzkeria ta ar dezala, arren bai arren, bere kutun-miñen saillean.

O matre pulchra filia pulchrior...

Ama ederragandik, oi zu, ume ederrago!
 Egotz naitara nire ziri-aapaldiak;
 nai ba'dituzu, sutara,
 edo-ta Adria itxasora.

5 Ez du Diomene'k, ez Piti eliztarrak
 orla bere otsaiñen gogoa asaldatzen,
 ez Bak'ek, ez Korinbate'k
 arratzean orla jotzen,

 asarre gaiztoak lez: au ez bai du izutzen
 10 ez norikar ezpatak, ez itxas gaizkiñak,
 ez su, ez Jupiter berak,
 ots-izu goitik jetxiak.

Prometeu'k izan zun nun-naitik arturiko
kiziak len-loiari itsatsi bearra
15 ta gure barruan sar el zun
leoi erroaren erra.

Sumiñak eraman zun Tieste ondamen
gaitzera, ta uri zutak ere asarreak
erauzi zitun errotik,
20 gudarozte arropuzak.

Etsai goldez irauliz bere arresiak
bare zaite. Ni ere bular-irakiñak
jo nindun gazte txorotan,
eta bertso erifñetan.

25 Ustu nun barnea. Gaur, baiña, latza otzan
biurtu opa dut nik; egiñaz damurik
ene laztantxo zaitezán,
gogoa atzera itzulirik.

Oarrak: - 5. Kibele dugu au, Prigi'n, Galatzi'ko muga ondoan,
Dindimo mendian jauretze bat zulako. - Piti, Apol'en izen-goitia. -
8. Kibele'n jaupariak ziran Koribante auek; eta, dirudienez, gure
tanbor antzekoren bat jo oi zuten beren jaureslundeetan. - 10.
Norika'ko burnia oso bikaiña ornen zan ezpatak egiteko, Plini'k
dionez. - 17. Tieste alderrai zebillen, bere anai Atereu'k erbestetua;
bein Plistene igorri zion ura iltzeko aginduz; baiña Atereu'k erbes-
tetua; bein Plistene igorri zion ura iltzeko aginduz; baiña Atereu'k
berak il zun Plistene. Atereu'k, aierkor, itxuraz onezkoak egiten
zituztelako oturuntza baten, Tieste'ri jan aragin zion Plistene'ren
aragia. - 21. Goldez irauli oi zuten uri kiskalitako lurra, zorua obeki
lautzearren. Kartago'n orrela egin zuten, baita Troia'n ere, Propertzi'k
dioskunez.

Carmen XVI

PALINODIA

O matre pulchra filia pulchrior,
Quem criminosis cumque voles modum
Pones iambis; sive flamma,
Sive mari libet Hadriano.

5 Non Dindymene, non adytis quatit
 Mentem sacerdotum incola Pythius,
 Non Liber aequae, non acuta
 Si geminant Corybantea aera,
 Tristes ut irae; quas neque Noricus
 10 Detarret ensis, nec mare naufragum,
 Nec saevus ignis, nec tremendo
 Iupiter ipse ruens tumultu.
 Fertur Prometheus, addere principi
 Limo coactus particulam undique
 15 Desectam, et insani leonis
 Vim stomacho apposuisse nostro.
 Irae Thyesten exitio gravi
 Stravere, et altis urbibus ultimae
 Stetere causae, cur perirent
 20 Funditus, imprimeretque muris.
 Hostile aratrum exercitus insolens.
 Compesce mentem: me quoque pectoris
 Tentavit in dulci iuventa
 Fervor, et in celeres iambos.
 25 Misit furem; nunc ego mitibus
 Mutare quero tristia: dum mihi
 Fias recantatis amica
 Opprobriis, animumque reddas.

XVII

TINDARI'RI

Gaia: Sabina eskualdean ba-zeukan Orati'k etxaguntza edo base-
 rri, obeki, basetxe bat, Mekena'k emana. Toki aitor, jori, oparotsu,
 atzamarra ziñez, landa, zelai ta zugatzez inguratua. Jainkoek ere
 eder zuten noski, ara baitziran aldatzen noizik bein, beuren egoitza
 oituzkoak utzirik. An danetik zan ugari: aize ozkirri ariñak ostotzan
 jostalari, auntz eta ardiak jauzika txiluraren otsera. Araxe dei dagio
 Tindari neskatxari, artzain-irudipean, an baita seguru izango, Kir
 mutil gaztearen espa ta zakarkerietatik aske.

Velox amoenum saepe...

Maiz aldatzen da Fauno txit ariñak Likeu
 Lukretil joriaz, ta suzko uda-garaitik
 ta aize euritsuetatik
 begiratzen dizkit auntzak.

5 Lasai billatzen dute, oian orritsuan,
senar atsituaren emazteak an-or
kurpitz ezkutu ta izpikak;
musker motzak ez dituzte

auntz-eskortak izutzen, ez otso erraiak,
10 ustika datzan ibar eta arkaitz tipiak
txirul goxoz, oi Tindari!
oska daudenetik gero.

Jainkoek alde ditut: ene on ta musa
eder dituzte aiek. Oparoak emen
15 adar naro ixuriko dizu
ene zelai-soro-onaurkiz.

Emen, ibar gordean zera uda-galdatik
zainduko; ta Teia-aria Penelope duzu
aipuan, ta kirke ederra,
20 irrits berdiñean zala.

Emen, itzal lasaian, Lesbi-ardo leuna
txarroz duzu edango; Tioneu Semelei'k
ez du Marte'kin liskarrik;
ta ez dukezu bildurrik:

25 Kir, zure maitatzaille gaizto latzak ere
ez dizu, indar ez berdin, eskurik jarriko,
ez ille-lokirik eutsi,
ez gona-mendelik suntsi.

Oarra. - 1. Fauno, baita Pan ere, artzaien jainkoa. Likeu, Arkadi'ko mendi bat, Fauno'ri opariak eskeintzen zizkiotena. - 2. Sabina'ko mendia, Orati'k bere etxauntza joria zeukana. - 6. Aker eta auntzak. - 10. Orati'ren etxaldetik ur samar zegoen muiñoa. - 15. Amalte'ren adarra dakar gogora, ekoizpenaren ikur eta gauza guztien oparotasuna. - 18. Teia urian jaioa duzu Anakreonte, bertso guri goxoak idatzi oparotasuna. - 18. Teia urian jaioa duzu Anakreonte, bertso guri goxoak idatzi zituna; aren antzeko neurtitz arin leunez esan nai du. - 21. Lesbi ugarteko ardoa emea duzu, kasketa astuntzen ez duelako. - 22. Bak, ardoaren jainkoa, bere ama Semele ta Tione, izen bikoitzez deitua.

Carmen XVII

AD TYNDARIDEM

Velox amoenum saepe Lucretilem
Mutat Lycaeo Faunus, et igneam
Defendit aestatem capellis
Usque meis, pluviosque ventos.
5 Impune tutum per nemus arbutos
Quaerunt latentes et thyma, deviae
Olentis uxores mariti;
Nec virides metuunt colubras,
Nec Martiales haeduleae lupos;
10 Utcumque dulci, Tyndari, fistula
Valles et Usticae cubantis
Levia personuere saxa:
Di me tuentur: Dis pietas mea
et musa cordi est. Hic tibi copia
15 Manabit ad plenum benigno
Ruris honorum opulenta cornu.
Hic in reducta valle Caniculae
Vitabis aestus: et fide Teia
Dices labotantes in uno
20 Penelopen vitreamque Circen.
Hic innocentis pocula Lesbii
Duces sub umbra: nec Semeleius
Cum Marte confundet Thyoneus
Proelia: nec metues protervum
25 Suspecta Cyrum, ne male dispari
Incontinentes inficiat manus,
Et scindat haerentem coronam
Crinibus, inmeritamque vestem.

XVIII

KINTILI VARO'RI

Gala: Neguz, zugatz-abetxoak aldatzerakoan, sartu lenbizi mats-aiena; onek bai damaigu ardoa, ta mama goxoak, neurrian edanik, biotza alaitzen digu; baiña zintzurra geiegitxo ezkota ezkerero, buru-arin ta oin-zanbulu, makiña bat liskar, itz-jario, lizeunkeri ta panparroiots sortu oi da bazterretan. Gogora, adibidez, Kentaur ta Lapitarren arteko eztaiburruka.

Nullam, Vare, sacra vite prius...

Matsa baiño len ez arren, Varo, zugatzik sartu,
ez Tibur'ko lau zabal ertezez, ez Katil'gox, orma ur.
Jainkoak zorrotz barne-samintzen of edan-zurрак,
ta ardoaz soilki iges dagite kezka miñak.

5 Nork du nazkatzen, edan ezkerо, guda naiz txiro?
Nork ez, obeki, zu, Bak aita, ta zu, Venus eder, gorai patzen?
Baiña Liber'en doaiak iñork ez bitza igaro,
Bogora, berriz, Kentaur ta Lapit su-liskartzen.

Baita gogora, aragi-garrez neurtu eziñik,
10 Ebi zeatzak Sitoni-tarrei eman-zea.
Ez dizut nik, oi Basareu ona!, gogait-aziko,
gutxigo iragar ostoz gordeta daukazuna.

Aske nazazu ots barezintar, turut latzetik,
ta aren jarraiak berez dakarren doiñu otsetik;
15 norberekiko zale itsu ta aintz utsal goitia,
ixilla bera utz oi duzuna leiar argia.

Oarrak. - 2. Katil, Tiburto ta Kora, iru anai izan ziran, gerkar agintariak, Itali'n ainbat uri irazan zituztenak; beren izenak toki askori eman zizkioten. - 5. Gudaldiko laztasunak, naiz txiro ta ez-eukian bizi izatea bera ere, edan ezkerо ez dira ain gordin. - 7. Liber, Bak'en beste izen bat; baita Ebi ta Basareu ere. - 8. Tesali'ko mendiegaletan bizi ziran Lapitarrak, Piriton, Kentaur'tarren anaia zuten errege; Hipodami'kin ura ezkondu zan egunean, baiña, danak ordi, Lapitarrekin sekulako iskanbil negargarria sortu zuten, auek garaille irtenik. -10. Ponto Euximo'n bizi ziran trazitarrak. - 13. Berezintar, Prigi ko mendi bat; Kibele'n omenezko jauresketak emen ospatu oi ziran, turut, zinburrin, atabal, txistu ta antzeko soiñugaillu askoz.

Carmen XVIII

AD VARUM

Nullam, Vare, sacra vite prius severis arborem,
Circa mite solum Tiburis et moenia Catili.
Siccis omnia nam dura Deus proposuit; neque
Mordaces aliter diffugiunt sollicitudines.

- 5 Quis post vina gravem militiam aut pauperiem crepat?
 Quis non te potius, Bacche pater, teque, decens Venus?
 At ne quis modici transiliat munera Liberi,
 Centaura monet cum Lapithis rixa super mero
 Debellata; monet Sithoniis non levis Evius,
- 10 Quum fas atque nefas exiguo fine libidinum
 Discernunt avidi. Non ego te, candide Bassareu,
 Invitum quatiā: nec variis obsita frondibus
 Sub divum rapiam. Saeva tene cum Berecyntio
 Cornu tympana, quae subsequitur caecus Amor sui,
- 15 Et tollens vacuum plus nimio Gloria verticem,
 Arcanique Fides prodiga, perlucidi Or vitro.

XIX

GLIZERE'RI

Gaia: Griña ta apeta askoren leize beltza dugu giza-barnea. Zar ta gazte, denok daramagu barruan ondo josia, irrits orren zimiko. HO rati ere, naiz-ta gizon jakitun ta goi-zalea izan, maitakerizko kasketaldi aldakorretan zerbait sartuta maiz ibillia dugu, berberak aitortzen digunez. Glizere maite zun beiñola, ta orain nabariturik, sor ta lor, idazten digu urrengo oda.

Mater saeva Cupidinum...

Soin-apeta zakarren ama oldarkoiak
 ta Teba'tar Semele'k beiñola sortuak,
 ta Lizun likiñaz, bultz dagite gogotik
 zarbail nun maite-sua piztarazi nairik.

- 5 Glizere bikaiñak nau osoan armintzen,
 Paro'k atxurdiña beste baita argia;
 aren arpegi zardain leunak nau erretzen,
 so dagi Onarentzat jaugarri guria.

- Venus, Kiper utzirik, ixur zait barnean,
 10 t'ez du nai eskitarrak nik gorai patzerik,
 ez zaldiak itzul oi ditun Partar aulik:
 ezertxo ere ez du nai, bere izanean.

- Mutillak!, jarri emen zoi eze bizia,
 ereiñotz, kedats, urte biko argO-ontzia.
 15 Orla zaigu, apika, Venus arinduko,
 eder zaion opari bat eskein ezkeru.

Oarrak. - 2. Au da: Venu ta Bak, Teba'ko errege Kadmo'ren alaba Semele'gandik jaioak. - 6. Paro, Kiklade ugarte-sailleko bat. - 11. Ots, asietarrak, eta partarrok, diotenez, igeska burrukatu oi zuten elkarrekin. - 16. Tazito'k dioskunez, edozetariko opagaiak eskeintzen zitzaizkion Venus'i, Pafo'n zeukan jauretxe ospe aundikoan. Begikoen, orraitio, bigantxak, auntz zuriak, bitñiak, erbiak eta usoak zitun.

Carmen XIX

DE GLYCERA

Mater saeva Cupidinum,
Thebanaeque uibet me Semeles puer,
Et lasciva Licentia,
Finitis animum reddere amoribus.
5 Urit me Glycerae nitor,
Splendentis Pario marmore purius;
Urit grata protervitas,
Et voltus nimium lubricus adspici.
In me tota ruens Venus
10 Cyprum deseruit; nec patitur Scythas,
Et versis animosum equis
Parthum dicere, nec quae nihil attinent
Hic vivum mihi cespitem, hic
Verbenas, pueri, ponite, turaque,
15 Bimi cum patera meri;
Mactata veniet lenior hostia.

XX

MEKENA'RI

Gaia: Mekena, iñork deitu gabe nunbait, Horati'renera doa jatordu bat egiten. Horati'k txeraz artzen du, aspalditik adiskide miñak dira-ta. Baiña maiean ez du ark ardo onik aurkituko, Sabina'ko txepel samarra baizik. Ala ere, berak aldakatua da, ondu ziten, gerkar upel tipieta; ain zuzen ere, gaitzaldi txar bateren ondoan, berak (Mekenak) antzokian aurkeztu ta txalo jotze ederra izan zuen urtean.

Vile potabis modicis Sabinum...

Gopor ñimiñoetan daukat nik maiean,
Mekena zaldun maite, sabindar ardo auta.
Baiña neuk ondu nizun gerkar upelean,
zuri bein antzokian
5 aunitz txalo eder jo zitzaizkizun artan;
Tiber ibai egalak dardartu ostean,
Batikano mendiak oiartzun alaian
erantzun zizunean.
Kekubo dedazu zuk, ta Kalen'ek trinka
10 mahats-mordoz egiña. Ez Falero-mastiak,
ez Formi'ko muiñoak, ez ditu ornitzen
ene mai-edontziak.

Oarrak. - 2. Zaldun ain aundiarentzat edari eskaxa. - 6. Batikano muiñoa, Tiber ibaiaren eskubi aldera dagO; Ponpei antzokia, berriz, ezkerretera. Mekena'ri egindako txalo-otsak, dirudinez, bi alderdiak iñarrosi zitun. - 10. Matsmuetarik onenak zeinbatzen ditu emen. Plini Zarrak diñOnez, alere, aintziñakoak naiago zuten SOrrento'ko ardoa.

Carmen XX

AD MAECENATEM

Vile potabis modicis Sabinum
Cantharis, Graecca quod ego ípse testa
Conditum levi, datus in theatro
Cum tibi plausus,
5 Clare, Maecenas, eques, ut paterni
Fluminis ripae, simul et iocosa
Redderet laudae tibi Vaticani
Montis imago.
Caecubam et praelo domitam Caleno
10 Tu bibes uvem: mea nec Falernae
Temperant vites, neque Formiani
Pocula colles.

XXI

DIANE TA APOL'EN GORALPENAK

Gaia: Neska ta mutil, kantari ikusi nai ditu Orati'k, Diana ta Apol goraturik. Orrela, Erroma gain dabiltzan gaitz-laiño usiak itzaliko lirake, noski. Egin eresi -dio- Diana ta Apol'i, Latone saiets utzi gabe. Txalo, zuok, neskatxok, ibai, baso ta oianak ditunari; goretsi, zuok, mutillok. Tenpe ta Delo, ta Apol'en gezi ta lira; eta onek zuon eslariak entzunik, Erroma'tik uxatuko ditu gaitz guztiak, beronen etsaien kaltez auek irauliz.

Dianam tenerae dicite virgines...

- Abestu Diane'ri, bi neskatx samurrok!
Jo eresi, mutillak, Zintar illetsuari;
jo Tzeu goikoaren
maite Latone'ri.
- 5 Jo alai ibar-oianak eder ditunari,
aundi bait duzu nunai, naiz Algido otzean,
Erimant beltzean,
naiz Krago ezean.
- 10 Gorets, zuok, gazteok!, Tenpe, txalo-zartaz;
baita Delo, Apol'en sorterri bikaiña,
gezi-ontzi lepo,
anai-lira beso.
- 15 Ark ditu, errukiz, erri ta Kaisar zaipe:
guda, gose ta izurri, gugandik uxatuz
Persi-britandar gain
eiek itzuliko.

Oarrak. - 2. Illetsua edo iñoiz ebaki gabe; Zinto, Delo ugarteko mendia: an jaiok, alegia, Diana ta Apol. - 6. Algido, Lati'ko mendi-zerrenda dugu, oso otza ta beso zarratutsua. - 7. Erimant, Arkadi'ko mendia, Krago Liki'koa bezela. - 12. Anaigandikoa, Apol'i, Hermes bere anaiak esku-erakutsizat eman ziolako. - 15. ErrOmakOen etsai gordiñak ziran bai persitarrak, bai inglesak.

Carmen XXI

IN DIANAM ET APOLLINEM

Dianam tenerae dicite virgines:
Intonsum, pueri, dicite Cynthium:
Latonamque supremo
Dilectam penitus Iovi.

5 Vos laetam fluviis et nemorum coma.
 Quaecumque aut gelido prominet Algido,
 Nigris aut Erymanthi
 Silvis, aur viridis Cragi:
 Vos Tempe totidem tollite laudibus,
 10 Natalemque, mares, Delon Apollinis
 Insignemque pharetra
 Fraternaue humerum lyra.
 Hic bellun lacrimosum, hic miseram famen
 Pestemque, a populo, principe Caesare, in
 15 Persas atque Britannos
 Vestra motus aget prece.

XXI

ARISTI FUSKO'RI

Gaia: Bizibide oso ta zuzena daramana, edonun da goretsia, Errugabea ez da iñoren beldur; Jainkoa bai du berekin, nola izu? Oian ta baso trinko zear arriskueta ibilli arren, ez du bear azkonik, ez gezi pozoiturik. Bein batean Orati'k berak, bere lendetxe ormaz bestalde, Sabina zeritzaion txara itsuan egurasten zebillela, otso aundi bat ikusi zun beragandik igeska. Beraz, naiz Iparralde izoz-tuan, naiz eguzki galdatan, barne- baretasun berdiñean dirauke, ezereen kezkabide gabe. Nainora doala, gogoaren bakea ta maitasun xaloak berekin daramazki. - Horati'en adiskide kutun Aristi au, olerkari ta gramatikari zenun.

Integer vitae scelerisque puros...

Bizitz osoa dunak ta, gaitzetik garbi,
 ez du bear, oi Fusko! mairutar azkonik,
 ez uztairik, ez ere izkillu-ontzirik,
 gezi ilkorrez beterik.

5 Naiz Sirte gurietan barrena bidegin,
 naiz Kaukas azkibela aron zearkatu,
 naiz Idaspe izkutuak miazkatzen ditun
 lurraldeak ikertu.

Bein baten, ez izkillu, ez barren-urduri,
 10 ene Lalage jasoz, Sabina oianean
 alderrai nenbillela, otso bat ikusi nun
 nigandik igesean.

Bere artadi ta ametz-baso trinkoetan
Pizti berdiñik ez du sor Dauni biurrak;
15 ez du azten parerik Juba'ko lur zabal
legoi-toki legorrak.

Jarri nazazu landa otz, egutaizeak
zugatzik laztantzen ez dun lur elkorretan,
illun ta giro latzak txik nekatutako
20 nainungo sorlekutan.

Jar nazazu Eguzki urbillegiaren
gurdipean. etxeari ukatu lurrean;
noiz ta nun-nai Lalage -irriz ta itzez goxo-
duket nik biotzean

Oarrak. - 5. Sirte, au da Libi'ko zabaldi idor, bero, ondartsuak. -
6. Kaukas, mendi-kate luzea, Ponto Euxino'tik Kaspi itxasoraiño. - 7.
Idaspe, gaur Djelem, Indo ibaia ugaritzen duna. Gezur ta arrigarri,
gauza asko esan oi zituen aspaldiko aldietan, bere ibillian urre-pipi
ta arri pitxiak zeramaztela ta olakoak. - 14. Apuli'k, Dauno errege-
gandik Dauni, gudari kementsuak ematen zitun. - Mauri-erria,
Juba'ko erreñua.

Carmen XXII

AD ARISTIUM FUSCUM

Interger vitae scelerisque purus
Non eget Mauris iaculis, neque arcu,
Nec venenatis gravida sagittis,
Fusce, pharetra:
5 Sive per Syrtes iter aestuosas,
Sive facturus per inhospitalem
Caucasum, vel quae loca fabulosus
Lambit Hydaspes.
Namque me silva lupus in Sabina,
10 Dum meam canto Lalagen, et ultra
Terminum curis vagor expeditis,
Fugit inermem.
Quale portentum neque militaris
Daunias latis alit aesculetis,
15 nec Iubae tellus generat, leonum
Anida nutrîx.

Pone me, pigris ubi nulla campis
Arbor aestiva recreatur aura;
Quod latus mundi nebulae malusque
20 Iupiter urget:
Pone sub curru nimium propinqui
Solis, in terra domibus negata:
Dulce ridentem Lalagen amabo,
Dulce loquentem.

XXII

KLOE'RI

Gaia: Kloe, ezkongai dalarik, olerkariari muxin dagio, ez onekin ezer nai. Antxume antzera, beti amaren magalpe ta berean; edozerk izutzen du gaiñera, orbel dardartí batek, musker baten begi-ziztak. Olerkariak, ala ere ez du arekiko asmo gaiztorik.

Vitas hinnuleo me similis, Chloe...

Urrun zoazkit, oi Kloe! mendiz mendi
ama billa izu doan oreinkume lez,
aize mee ta oian leunen
alperriko beldur utsez.

5 Naiz egutaizeak jota ostoak dardartu,
naiz musker orlegiak sasitzak igitu,
izutan du ark bularra,
dardaraz du ark belauna.

Katamotz uxu antzo, legoi Aprika'ko,
10 nik etzaitut egiaz jazarten lertzeko.
Utz zazu azkenik ama,
jadan senargai bait zera.

Oarrak. - Gerkarrak ba'dituzte gisa ontako kopla arin txairoak, Anakreonte'k esate baterako. - 2. Orein-kumea, izan ere, *oso* bildurkorra duzu. - 9. Afrika'ko legoia, Getuli'koa batez ere, naiz-ta beste toki askotan legoia izan.

Carmen XXIII

AD CHLOEN

Vitas hinnuleo me similis, Chloe,
Quaerenti pavidam montibus aviis
Matrem, non sive vano
Aurarum et silvae metu,
5 Nam seu mobilibus vepris inhorruit
Ad ventum foliis, seu virides rubum
Dimovere lacertae,
Et corde et genibus tremit.
Atqui non ego te, tigris ut aspera,
10 Gaetulusve leo, frangere persequor.
Tandem desine matrem
Tempestiva sequi viro.

XXIV

BERGILI'RI

Gaia: Bergili'ren adiskide laztan Kintili Varo, Kremona'n sortua, il zan, eta aren itzalia eraman-eziña, alegia. Olerkariak arindu nai dio pitin bat negar-zioaren astuna, atsekabeen lagunduz. Baiña, galpen gogor orretan nork ez ote zinkurin? Berezkoa dugu malko-jarioa, maite gendunaren gorpu ondoan. Alabearrez jazo danari, zer egingo? Begi ta biotz goi, egonarriari atxiki.

Quis desiderio sit pudor aut modua...

Nor lotsaz, zer erak atzeraziko ote
lagun ona alatzetik? Jar niri min-kantak,
Melpomene!; abots ta kitara zoliz, ba,
orni nindun zure aitak.

5 Kintili artu dula lo betirakoak?
Noiz aurki ote dute berdin danik Lotsak?
Sifiiste orbangabe Zuzenaren aizpak,
edo-ta Egi billutsak?

Zindo askorentzat il zitzaigun negar-duin;
baiña zutzat, Bergili! txit negargarria.
10 Zuk, ai!, alperrik orain eskatzen Jainkoei
len ustetsu goraintzia.

Naiz-ta lira zugaitzak dardar-aziaz jo
Treizitar Orpeu'k bezin trebe ta esku-antzez
15 irudi illaunik ez du odolik artuko,
bein zigor ikarakorrez.

Adurik eskarika aldatzen ez dunak,
Itzal-talde zurbilla, Merkuri'k bultz ba'du,
mingotza! Baiña aldatu eziña dana ere
20 eroapenak goza oi du.

Oarrak. - 1. Jupiter eta Mamosine'gandik sortuak ornen dira
Musa edo Maitagarriak. - 5. Betiko loa ta Erio orobat. - 11. Iñoiz,
olako uste gabe, jainkoen babesean ipiñi zenun Kintili. - 15. Bein il
ezkero, ez dago bizira biurtzerik ez kantuz, ez negarrez. - 18.
Ildakoak. Txibita beltza erabilli oi zun Merkuri'k arimak inpernura-
tzeko.

Carmen XXIV

AD VIRGILIUM

Quis desiderio sit pudor aut modus
Tam cari capitis? Praecepte lugubres
Cantus, Melpomene, cui liquidam Pater
Vocem cum cithara dedit.
5 Ergo Quinctilium perpetuus sopor,
Urget? cui Pudor, et Iustitiae soror,
Incorrupta Fides, nudaque Veritas
Quando ullum inveniet parem?
Multis ille bonis flebilis occidit:
10 Nulli flebilior, quam tibi, Virgili.
Tu frustra pius, heu! non ita creditum
Pocis Quinctilium Deos.
Quod si Threicio blandius Orpheo
Ausitam moderere arboribus fidem,
15 Non vanae redeat sanguis imagini,
Quam virga semel horrida,
Non lenis precibus fata recludere,
Nigro compulerit Mercurius gregi.
Durum! Sed levius fit patientia.
Quidquid corrigere est nefas.

LIDE'RI

Gaia: Lide beztu naiean egindako oda, alderdoi gaiztoz aurkitzen zala nunbait. Zartuz doa Lide au; eta, jakiña, beste egunetako maitale puztuak erebakanago jotzen dute aren atea. Gizona beti bat: gazte-zale, berri-zale.

Parcius iunctas quatiunt fenestras...

Orain ez, ez ditue zure leio itxiak
onen sarri kaskatzen gazte limuriak,
lorik ere ez dizute ainbat galerazten:
geldi datza atea.

5 Len orpo-gain errezto ibilli oi zana,
gutxigo dantzuzu, bai gero ta gutxigo;
"Ni il egiñean, Lide!; zu, berriz, gau luzez
lasai zauzkat lo!"

Lastertxo, zar ta bakar, zurkulu illunean,
10 Trazi'ko ipartzar mende, naiz gau illargigean,
negartuko dituzu beiñola zeintun
izorle makoak.

Gibel bira minduen maite-su gaiztoak,
beorrak ziztatu oi ditun ar-ara antzo,
15 kiñakari zaitula erretzen oartzuz,
kexu zera oso.

Gaur, gaztedi alaia, untz eze antzean,
ta mirtu illaunen Eurori eskeintzat egiñik
ostotza zimelez.

Oarrak. - 7. Bi bertso auek erri-kantaren batetik artuak, noski. Baziran gerkarren artean. *Paraelausithiron*, ots, ate itxi eurreko kanta zeritzaienak, mutik gazteak neskatillen leio edo ate aurrean abestu oi zituztenetakoak. - 10. Gerkarrak uste zutenez, Trazi omen zan aizeen sorleku; andik zetorren batez ere, ondo puztua, mendi ta alor ederki astintzen zitun iparra.

Carmen XXV

AD LYDIAM

Parcius iunctas quatiunt fenestras
Ictibus crebris iuvenes protervi,
Nec tibi somnos adimunt; amatque
 Ianua limen,
5 Quae prius multis facilis movebat
 Cardines,¿. Audis minus et minus iam:
 *Me tuo longas pereunte noctes,
 Lydia, dormis!*
Invicem moechos anus arrogantes
10 Flebis in solo levis angiportu:
 Thracio bacchante magis sub inter-
 lunia vento:
 Cum tibi flagrans amor, et libido,
 Quae solet matres furiare equorun,
15 Saeviet circa iecur ulcerosum;
 Non sine questu,
 Laeta quod pubes edera virenti
 gaudeat pulla magis atque myrto:
 Anidas frondes Hiemis sodali
 Dedicet Euro.

XXVI

ELI LAMI'RI

Gaia: Oda onek ez du balio aundirik, ez azalez, ez mamiz; olerkalen-saioaren bat dugu aurki. Beronen bitartez, bere adiskide Eli Lami, gizarteko gorabera ta urduri latzetatik urrundu nai du; berak ere orrelaxe egin zun, Musaen lagun kutun gertaturik. Lami bere arteko gura leuke, ta maitagarriari eskatzen die arentzako kOroe bat, aren oroitzapena illezkortuz. K. Emili Lami oso jakintsua duzu, erromarrak Euskalerrian izandako gudaz ederki idatzi zuna.

Musis amicus, tristitiam et metas...

Eder zaizkit Musak, eta bioaz urrun
ene ituan ta izua aize ankerren egora,
eraman ditzatela Kreta'ko itxasora.

Bebiltza urrun Ipar lur izoztuetan
5 Erregeren ikaraz, Tiridate antzo
nik kezka gabe eresi dagidan artiñO.

Oi zu, Pinplear ezti?, Iturri gardenak
alaitzen zaituena: edo lore-txOrtak,
eio ene Lami'ri buruntza sotilla.

10 Zu gabe, deus ez dira ene ohoreak;
zuk eta zure aizpak on da jardutzea.
Ari berri ta Lesbi'ko esku-abarñoa
Gizon au gora jazo eta illezkortzea.

Oarrak. - 3. Kreta'ko itxasoa guztiz ekaizti da. - 5. Armeni'kO
errege, partitarren egintariak, Praate'ri negusitza kendu zion, eta
gero onek ari; luzaro asko, arat-onat ibilli zitzaigun ondoren. - 7.
Pinple, Pieri'ko errialdea, Musai opatu; ba-ziran aintziña izen aun-
diko iturriak -Agapine, Kastali, Ipokrene baitik-bat- musa oiek
maite zituztenak. Olerkariak, gaur ere, alakoetan xurgatu dute
goitiko argia.

Carmen XXVI

DE AELIO LAMIA

Musis amicus, tristitiam et metus
Tradam protervis, in mare Creticum
Portare ventis: quis sub Areto
Rex gelidae metuatur orae,
5 Quid Teridatem terreat, unice
Securus. O, quae fontibus integris
Gaudes, apricos necte flores,
Necte meo Lamiae coronam,
Pimplei dulcis; nil sine te mei
10 Possunt honores: hunc fidibus novis,
Hunc LesbiO sacrare plectro,
Teque tuasque decet sorores.

MAIKIDEERI

Gala: Oturuntza bat, eta Horati ere maikide. Ondo jan eta edan ostean, maiz oi danez, iskanbilla ta zeratots izugarria sortu da maikideen artean. Horati'k ez du olakorik nai, mama goxoa ez bait da bururako, pozerako egiña baizik. Bak'ek ere, lotsati izanik, ez du noski olakorik opa. Olerkariak ederki dagi, giroa goi-arnas kutsuz astundurik, edalarien artean pakea sortzeko. Maian jarraituko du, aiek beren lipizta, leia, jardun latz eta eztabaidak bizkarka uzten ba'dituzte; ortarako, ots, aien adimenak nesteratu ta jostatzeko, aietako batek ditun maite-lelo ta ixillak gogora dakartzi, oso bizi ta txairo.

Natis in usum laetitiae scyphis...

Poz-biderako egin murkoz liskartzea
Trazitarrena bai da. Utz oitura uxua,
Bak lotsorra gorderik
auzi odolezkotik.

5 Medotar sastakaiak bestelako nOski
ardo z nai zuziz! Ibi, arren, lagun miñok,
ots gaitza, ta zaudete
geldi, ukondo bete.

Nai al duzute nik ere nerea artzea
10 Falern latzetik? Besat Megila'n anaiak
zer zauri duen eder,
zer geziz dagOn iltzer.

Ez du nai? Nik ez dut ba edango, orla ezik.
Dana dala mendean zauzkan Venus ori,
15 maite aalkizun gabez
garretan zaude barnez.

Maite ziñari beti zuk amor. Duzuna
jar belarri onetan. -Aur zori gaiztOko!
Zein Karibdis zuk duzun!
20 Obeki bear zenun!

Zein sorgiñek, zeln aztik Tesali'ko irazkiz,
Zein Jainkok ote zaitu ortik erauziko?
Nekez Pegaso'k ere
Kimer ortik jareiko.

Oarrak. - 2. Trazitarrak, antza, osoan edariari emanak ziran; bein gaiñak zurbildu ezkerO, tema ta barbailla zaleak ere bai. - 5. Aintziñakoan, medotarrak, baita persitarrak eta eskitarrak ere, sastakai motzak erabili Oi zituzten aldean. - 8. Ez ziran antziña gu bezela maian jartzen jaterakoan, oe txikietan etzanik ezker ukOndoa buruko gaiñean zutela baiño. - 10. Plini Zarrak iru ardo-mota Falerno'ko aipatzen dizkigu: latz.goxo.mee. Latza oberena aurki. Megila neskatx lerdena, oso ezaguna. - 21. Ots aundikoak, Tesali'ko mendietan sortzen ziran belar edentsu ta kaltegarriak. - 23. Pegaso zaldi azkarean zijoan Beleropont Kimer'i eriotza eman zionean.

Carmen XXVII

AD SODALES

Natis in usum laetitiae scyphis
Pugnare, Thracum est: tollite barbarum
Morem, verecundumque Baecchum
Sanguineis prohibete rixis,

5 **Vino** et lucernis Medus acinaces
Immane quantum discrepat! Impium
Lenite clamorem, sodales,
Et cubito remanete presso.

Vultis severi me quoque sumere
10 Partem Falerni? dicat Opuntiae
Frater Megillae, quo beatus
Vulnere, qua pereat sagitta.
Cess at voluntas? non alia bibam
Mercede. Quae te cumque domat Venus,
15 Non erubescendis adurit
Ignibus, ingenuoque semper.

Amore peccas. Quidquid habes, age,
Depone tutis auribus. -Ah miser
Quanta laboras in Charybdi!
20 Digne puer meliore flamma?

Quae saga, qui te solvere Thessalis
Magus venenis, quis poterit Deus?
Vix illigatum te triformi
Pegasus expediet Chimaera.

XXVIII

ARKITA'RI

Gaia: Ontzilari baten eta Talento'ko Arkita'ren arteko alkar izke-
ta. Arkita au oso azkarra zenun, Platon'en egunetakoa: izarlari,
laterri-gizon, pilosOpu, matematiku ta abar. Ontzi-galtze bat irudit-
zen du Orati'k, Tarento'ko jakintsuaren gorpua zetzan itxas-ertzean.
Ontzilariak diotsa: -Zertako zure jakiteak oro, il ezkeru? Eta Arkita'k:
-Denon zoria duzu ori, gazte ta zar, jakintsu ta ez-jakin, il bearra bait
dugu. Ni itxasoan ito nintzan. Eortz zazu, ontzilari, ene gorpua
ondar gorrian. Orla, nolaiko arriskutan izan, onez aterako zaitute
urtzitarrak.

Te maris et terrae numeroque carentis arenae...

- Zu, itxas, lur ta kopuru gabeko ondar neurle,
oi Arkital auts gutxiren emari erkiflak
Matima-egitik ur esiz lotzen zaitu.
Ez duzu ezertako, il bearra bait zera,
5 goi-etxeak aztertu ta andik ibiltzea.
- Bai, il zan Pelope'n aita, Jainkoen maikide;
il Titon ere, aize gaiñez goratua;
ta Tartar'ek dauko bai Pantoi semea,
10 bi aldiz su-lezera ziurki jetxia;
ta onek troiar azken orduko ikuslari,
bular -babeski ostuz, ez zion eman deus
Balbe beltzari larru ta kirio ezik:
zure iritzi zurrez, izadi ta egi
15 txit gorai patu zitun idazlari argi.
Baiña denok daukagu zai gau illun berdiña.
ta bein oinkatu bear eriotz bidea.
Asarreak Marte'ri batzuk oi ematen,
itxaso ase-eziñak aunitz iruntsiten,
20 **Nasian** oi ditugu zar-gazteen illetak,
buru bat bera ez du Proserpina'k uzten.
Ni bere Notu'k nindun jo iliri uiñetan,
Orion makurraren lagun txit azkarrak.

Baiña zuk, ontzilari, naiz-ta txar, ez utzi
 25 ene ezur eta buru lurpetu gabeak,
 ondar artean toki puskat eman gabe.
 Euro'k, Esperi-uiñez zemaitzen dun oro,
 Benusin-oianetan sar beza, zu jarei,
 ta Jupiter ongillak ta Neptun Tarento
 30 deuneko zaiña danak bial bezaizkizu
 aberaski joriak, atertu gaberik.
 Zabar al zera, apika, aur errugabeeri
 gero kaltekor zaien gaitza osatzeko?
 Erortzer dituzu zuk ere, bear bada,
 30 Zuzenaren zorra ta aldizka mergatza.
 Leia au iritxi gabe ez naiz ni asetuko,
 t'etzaitu nolanaiko oparik jareingo.
 Iradu ibilli arren, ezta luze egona;
 frutan autsa bota, ta itxasoz zabiltza.

Oarrak. - 3. Gargano menditik urbil, Apuli'ko itxas-adar oiñean luzatzen dan ur-egal zabala. - 6. Tantalok, Jainkoeri oturuntzara dei egin zien, bere Jainkotasuna erakustearren, eta jan bitartean bere semearen aragia azpil borobilletan. - 7. Laomedon'en seme ta Piriamo'ren anai; Eguantzak senar egin zun, lurretik bere gurdian indarrez altxata, Etiopi aldean zartzaroraiño bizi izanik. - 8. Karete'ko agintari zala, Jupiter'ek berak eman zizkion erria jaurtzeko bear zitun lege artez jatorrak. - 9. Euforbi, Pantoo'ren semea, Pitagore'gan berriz aragitua. -12. Pitagora'k, Euforbi bera zala erakusteko, Argos'en Ere'n jauretxean ostutako Pantoo'ren semearen bular-oskola beretzat ezagutu zuen. -23. Orion izartegia beerantza zijoanean, azillaren lenengoz geien bat, eguardi aldeko aize biurriak zakar astinduta, ekaitz eta euri jasa naspiltsuak sortu oi ziran. - 27. Euro, egoaldeko aizea, Adriatiku itxasotik zetorreana, noski.

Carmen XXVIII

ARCHYTAS

Te maris et terrae numeroque carentis arenae
 Mensorem cohibeat, Archyta,
 Pulveris exigui prope litus parva Matinum
 Munera: nec quidquam tibi prodest
 5 Aerias tentasse domos, animoque rotundum
 Percurrisse polum, morituro,

Occidit et Pelopis genitor, conviva deorum,
 Ti thOnusque remotus in euras,
 Et Iovis arcanis MinOs admissus: habentque
 10 Tartara Panthoiden, iterum OrcO
 Demissum; quamvis, clypeO Troiana refixO
 Tempora testa tus, nihil ultra
NervOs atque cutem Morti cOncesserat atrae;
 Indice te non sordicus auctor
 15 Naturae verique. Sed Omnes una manet nox,
 Et calcanda semel via leti.
 Dant alios Furiae torvo spectacula Marti:
 Exitio est avidum mare nautis:
 Mixta senum ac iuvenum densentur funera, nullum
 20 Saeva caput Proserpina fugit.
 Me quOque devexi rapidus comes Orionis
 Illyricis Notus obruit undis.
 At tu, nauta, vagas ne paree malignus arenae
 Ossibus et capiti inhumato
 25 Particulam dare; sic, quodcumque minabitur Eurus
 Fluctibus Hesperii, Venusinae
 Plectantur silvae, te sOspite, multaque merces,
 Unde pOtest, tibi defluat aequo
 Ab IOve, NeptunOque sacri custode Tarenti.
 30 Negligis immeritis nOcituram
 Postmodo te natis fraudem committere? FOrs et
 Debita iura vicesque superbae
 Te maneant ipsum: precibus nOn linquar inultis;
 Teque piacula nulla resolvent.
 35 Quamquam festinas, nOn este mOra lOnge, licebit
 Iniecto te pulvere curras.

XXIX

IKI'RI

Icci, beatis nunc Araburn invides...

Orain, Iki, Arabi'ko Ogasun doneak
 txibiz zauzkate ta latz dituzu artu nai
 iñoiz goiti gabeko Sabar erregeak
 ta Medotar zuharra katetan ipiñi.

5 Baiña, neskatek otseinduko zaitu
gudaldian senarra sakail ba'diozu?
Zein mutil ille igurtzik beteko dizkizu
xurgatzeko txangillak zeur'jauregi barru?

Seretar gezi meeak aita-uztaiz jaurtzen
10 ikasi ezkeru? Lats ariñak, nork uka,
mendi goienetara ausarditsu *igo*,
baita Tiber ere etor litekela atzera?

Zuk be baituzu alda nai, obe bearrez,
naunun erosi Paneki idazti ospetsu,
15 Baita Sokrate'n etxe oso leiñargitsu,
Españar soin-babeski latz medarren ordez?

Orrak. - 1. Uste zanez, arabitar aberaskiak zeuzkana zoriontsu egin oi zuten. Gaza zan izan Persi'ko erregeen altxorra. - 2. Txibiz, ots, bekaitzez, ondamuz, inbidiz. - 3. Izan ere, erromarrak etziran egundo eldu urre ta lurrñez aberats ziran Sabes deritzan Arabi zoriontsuko alderdiataraiño. - 14. Peneki, jakinzale estoitarra, Rodas'en jaio zan eta Atenai'n il, III'garren urtean; edonun erosi zeitekezan aren liburuak. - 16. Kordoba'ko larruak ospe aundia zuten.

Carmen XXIX

AD ICCIUM

Icci, beatis nunc Arabum invides
Gazis, et acrem militiam paras
Non ante devictis Sabaeae
Regibus, horribilique Medo
5 Nectis catenas? Quae tibi virginum
Sponso necato barbara serviet?
Puer quis ex aula capillis
Ad cyathum statuatur unctis,
Doctus sagittas tendere Sericas
10 Arcu paterno? Quis neget arduis
Pronus relabi posse rivos
Montibus, et Tiberim reverti;
Cum tu coemptos undique nobiles
Libros Panaeti, Socraticam et domum
15 Mutare loricis Iberis,
Pollicitus meliora, tendis?

xxx

VENUS'I

Gaia: Glitzeri'k, bere etxean, aldare bat eraiki ta apain jarri dio Venus'i. Oni dei dagio olerkariak, neskatz lirain orren egoitzera bere jarraigo osoarekin etor dedilla neurtitz berotan eskatuz.

O Venus, regina Gnidi Paphique...

Oi Venus, Gnido ta Pafko'ko erregin,
laga zazu, otoi, Kiper maite ori,
ta eder bekizu Glitzeri'k ke-lurrin
gert dizun ondi.

5 Betor zurekin Aur txit sutua be
gerri-aske Eskerrak; betOz Ninfak guri,
baita zu gabe zer ez dan Gaztedia;
betor Merkuri.

Oarrak. - 1. Gnido, Kari'ko uria, berton lakedemonitarrak bizi ziran geienbat; kai bi zitun eta salerosketan ederki saiatzen ziran bertako biztanleak. Venu jainkosak ere an zeukan jauretxea, eta bertan Praxitele'k landutako irudi bikaiña. Pafko, berriz, Kiper edo Txipre'ko uria. - 5. Aur sutu, Cupido edo Maitagarria; Eskerrak, Venu'ren urtzemearen lagun ta zerbitzariak; Gaztedia, Venu'ren jarraitzaille zintzoak; Merkuri, jainkosari zernai adierazten ziona.

Carmen XXX

AD VENEREM

O Venus, regina Gnidi Paphique,
Spene dilectam Cypron, et vocantis
Ture te multo Glyceræ decoram
Transfer in aedem.

Fervidus tecum Puer, et solutis
Gratiæ zonis, properentque Nymphae,
Et parum comis sine te Iuventas,
Mercuriusque.

'MI

APOL'I

Gaia: Galdor-jaiak egiten dira, au, da, Akik'k lorturiko garaipenaren oroiz eskerrak eman bearrez Apol'i jaso zioten jauretzea eskeintzea. Jainko au zun August'ek kutun. Zer eskatuko berari jai ontan? Olerkariak ez beintzat abererik, ez etxagintzarik, ez soro-alorrik, ez urremarfilik. Osasuna ta sena bakar-bakarrik, zart-aroa ohorez igarro al izateko.

Quid dedicatum poscit Apollinem vates?...

Oler-zaleak zer deskain Apol'i
galdor jaiegunez? Zer otoiztu murkoz
ardo berri ixurka? Ez Zerdein nareko
uzta pillorik, ez Kalibri berOko
5 artalde ederrik, ez Indi-urre-bolirik,
ez Liri'k -lats ixil-bere ur me-geldian
miazkatzen ditun alor ugaririk.
Zoriz dauzkatenak iñausi bitzate
Kalenar maketsez beren mahastiak;
10 aita bitza aberats merkatari danak
urrezko oporretan Siri-saleroskiz
aldatu oi ditun ardao bakanak
Jainkoek maitea, urtean irulauz
Atlanti-itxasoa al izan bait du ikus.
15 Niri oli-kimuak bemaite janari;
nik txikoriz dut ta malba ariñez aski.
Idazu, arren, oi Latona'ren seme,
irabazietan poz nadilla mardul
eta sen osozko; ez zarretan baldar,
ez kitaraz ere iñoiz gabetua.

Oarrak. - 3. Mediterran-itxasoko ugarte oso emakor duzu Zerdeia. - 4. Kalabri, Itali'ko egoalderantza, Apuli barman. Emen negua igarota, udara Lukani'n ematen zuten artaldeak. - 6. Liri errekea, gaur Garigliano. - 9. Kaleno, Kanpani'ko iria; emen egin oi zituten marraz berezi batzuk, ots, igitei makoak, mats-aienak ebaki ta matsa biltzeko. - 11. Siri'kO salgaiak, batez ere lurrin, usaiki, ongaillu, oinpeko ta abar ziran. - 19 Apol.

Carmen CI

AD APOLLINEM

Quid dedicatum poscit Apollinem
Vates? quid orat, de patera novum
Fundens liquorem? Non Opimas
Sardiniae segetes feracis;
5 Non aestuosae grata Calabriae
Armenta; non aurum, aut ebur Indicum,
Non rura, quae Liris quieta
Mordet aqua taciturnus amnis.
Premant Calena falce, quibus dedit
10 Fortuna, vitem; dives et aureis
Mercator exsiccet culullis
Vina Syra reparata merce,
Dis carus ipsis; quippe ter et quater
Armo revisens aequor Atlanticum
15 Impune. Me pascant olivae
Me cichorea, levesque malvae.
Erui paratis et valido mihi
Latoe, dones, et, precor, integra
Cum mente; nec turpem senectam
20 Degere, nec cithara carentem.

XXXII

BERE LIRARI

Gaia: Orati'k, bere jogaillu edo lirari dei dagio aintziña baten Alkeu'ren atz artean dardaratu zan bezela, orain bereen artean ere laterar kantuz durundu dagiala eskaturik. Bere lagunak, antza, bein eta berriz eskatu zioten erakuts zezaiotela zuen liriku asmamena, Erroma'ri buruzko gai goitarrez saiaturik. Orrela dagi; baiña gauza bat gogoraziz, Alkeu bulartsua ere iñoizka, oso gogara, uskeri ta biotz-samurkerietan ari izan zala.

Poscímur: -si quid vacui...

Eska bai didate: -itzalpean lasai,
bein jo ba'zindudan, aurtan ta aleun urtez
bizi izan zaizala-, idazu, dardar gaur
Latin eresi,

XXXIII

ALBI TIBUL'I

Gaia: Albi Tibul'ek maite zun Glizere, ordaiñez ordea etzun erdaiña ta otza besterik jasotzen. Olerkariak, bere aldetik, irain eta ezespen ontan poztazi nai du, beste askori ere berdin gartatzen zaiola esanik. Venu'k du orren errua, burni-uztarriz lotzen bait ditu gogo alkartu eziñak.

Albi, ne doleas plus nimio, memor...

Zu, Albi, etzaitez geiegi samindu
Glitzere gordiña orla oroiturik;
ez jo illeta aulik negarrez itunki,
gezurti alenak, eman-itz jaleak
5 gaztego batgatik utz ba'zaitu ere.

Kir-ganako maitez dago erre-dirdir
Likori kopeta liraiña; ta, aldiz, Kir
Foloe latzaren atzetik dabilizu;
ta Foloe'k ezkontz-nas au utzi baiño len,
10 Apuli'ko otsoak auntzakin bilduko.
Onela nai Venu'k; eder bait zaio
kiderik ez duten gogo ta biotzak
borontzezko uztarriz josta-latz lotzea.

Ni ere, maite-gar obez erretzean,
15 arte goxoz nindun atxillo Mirtale'k;
Mirtale azkatuak, Kalabri'ko arkaiz
makurrak tai gabe ozkatzen dituten
Adri-uiñak bezin zital suminkorrak.

Oarrak. - 15. Venus otzana ta maitati dagerkigu emen; Mirtale, berriz, urduri, sutsu ta asarrekor. - 18. Adriatik itxasoko ugiñak, Kalabri ertzera iristekoan, kolko antzeko biribilla idorotzen dute-lako, ezialdi narean egokitu oi dira.

Carmen XXXIII

AD ALBIUM TIBULLUM

Albi, ne doleas plus nimio, memor
Immitis Glycerae, *neu* miserabiles
Decantes elegos, cur tibi iunior
Laesa praeniteat fide.

Urtzitarrak al du, bai, goiak leize biur;
baita illuna argituz, izen aundikoa
15 beztu; Sirats zitalak, aiots gordiñetan,
emen jartzendu pozik an ostu koroa.

Oarrak. - 2. Epikur jakinzalearen aburuz, ez da Jainkorik, eta izan ezik, ez dago zertan ez denari agur egiterik ere. - 3. Amandako oinkadatatik berriz ibilli bear, aolkuz aldaturik, ontzi-oialak bestera jarri ta itxastarrak egin oi zutenez. - 5. Egun-aita, ots, Jupiter. - 10. Estigi, su-lezako aintzira. - 11. Tenar au, olerkarien artean, Peloponeso'ko artzulo sekonbat ornen, emendik jaisten bide zan su-lezara; gaur Matapan itxas-muturra dugu. - 12. Aintziñakoak uste zutenez, lurraren atzena atlante itxasoan kokatzen zan. -13. Jainkoak apaletsi dezake goitua, baita apaletsia goitu ere.

Carmen XXXIV

CONFESSIO POETAE

Parcus Deorum cultor et infrequens,
Insanientis dum sapientiae
Consultus erro, nunc retrorsum
Vela dare, atque iterare cursus
5 Cogor relictus. Namque Diespiter
Igni corusco nubila dividens
Plerumque, per purum tonantes
Egit equos volucremque currum;
Quo bruta tellus, et vaga ilumina,
10 Quo Styx et invisi horrida Taenari
Sedes, Atlanteusque finis
Concutitur. Valet ima summis
Mutare, et insignem attenuat Deus,
Obscura promens. Hinc apicem rapax
15 Foruna cum stridore acuto
Sustulit, hic posuisse gaudet.

XXXV

SIRATS'ARI

Gaia: Oda txit bikaiña. Urtzemeari gorapen-itzez dei egin ondoan, August zaitu dezala eskatzen dio barnemin. Kaisar, izan ere,

laster Bretaña'tarrei guda egiteko zan; baita asmotan zerabilen arabitarren kontrakoa ere, iru urte geroago ustel urten arren. Beraz, zaindu ta babes beza Jainkoak gudaldi arriskutsu oietan, August, eta berdin Erroma'ko gaztedi bulartsua. Gero, barruko iskanbil eta zoritxarrak dakazki gogora, negargarriak beti ere. Ez bedi olakorik berriz gertatu.

O Diva, gratum quae regis Antium...

O Jainkosa, Anti inkai jagoten duzuna!
Naiz beeko maillatik soin ilkorra jasotzen,
naiz-eta gurendarik aintzaz gorenenak
kirmentsua bait zera negar-progu itzultzen.

5 Zuregana dijoa otoitz arduatsua
nekazari landerra; zu, gezal-andera,
Karpati'ko urak zear oleska dauzkazu
Bitiniar ontzian doaztenak ere.

Bildur zaitu Dak latzak, eskitar igestik,
10 uri ta enderriak, ta Lati azkarrak;
bildur zaitu errege basatien amak,
ta gorri jantzitako almendun zoharrak.

Bildur zaitu zauden zutabe tinkoa
oin-zarta iraunkorrez ez dezazun eratsi,
15 ta erri naspildua gudara ez dedin,
alperrak gudara, ta enderria suntsi.

Bear zorrotza beti doakizu aurrez,
iltze lodi ta ziri ditula eskuan;
baita ba-daramazki orma-kizki gogor
20 ta urturiko beruna, bere atz-kaskuan.

Jarrai duzu Itxaro, ta Siñes soil-bakanak
ez zaitu utzitzen, zapi zuriz estalia;
lagun duzu berarik, jantzi illuna aldatuz,
jauregi altsuan zuk uztean bizia.

25 Baiña erri gerurti t'ematxar likiñak
gibel dagite. Upelak uts, igesi doaz
kide-lagunak, uztar astuna elkarrekin
jasan-miñak dakarren marruzko dordoaz.

Zain zazu Kaisar, ludi azkenetariño
30 bait doa, Britandarrei gudu egitera;
lagun itzazu gazte-mulko berriak ere,
Sortalde ta Itxas gorri beti dardar-bera.

Lots bekigu anaien zauri ta erio!
Garai mingarri artan, noren bildur giñan?
35 Gaiztoak, zuzitu, gabe, zer utzi genuan?
Jainkoen ikaraz, noiz gazte-eskuak motz?

Opa-mairikan laga ote zan errukiz?
Burni-mutur kamotsak tximure berrian
Onduko ba'zenitu ta itzul erazkoan
Masagetar ta arabiarren on-ezean!

Oarrak. - 1. Anti, bolskotarren uriburu zarra; Sirats edo ZOriak emen zeukan bere jauretxea, bi irudikin: *Fortuna equestris*, ots gudakoa, ta *Fortuna felix*, ots pake emakorrekkoa; *inkai* itzak zoritsu, atsegingarri esan nai du. - 8. Bitina'ko berebiziko zura ekarri oi zuten itxas-ontzietarako. - 9. Dakotarrak, Danubi ta Karpati mendi tartean bizi izan ziran, Traiano'ren agintaldirarte iñork ere goitu gabe; eskitarrak. ordea, Europa'ko ego-sortalderuntz eta Asia iparraldera, eta arriskuetatik iges egiteko lurralde lau zabalak zeuzkaten aurrez-aurre. - 17. Anti'n gurtzen zen Sirats'aren laukian Berra margoztua, ta onek iltze ta ziriak zeramazkin eskuan, bere sendotasun goitu-eziñaren ikur: iltzeak, askatu-ezin-alan gauzak lotzen ditulako, ta ziriak, oro xati ta ezpall biurtzen dulako. - 21. Ezbear ta zoritxarrik aundienetan ere Itxaropenak pozten bai gaitu eskuarki. - 31. Orduntxe zekarten Medi ta Persi'tarren aurkako gudurako aukeratu zituzten gazte-taldeak. - 23. Erri arteko liskar eta matxiñadan arturiko zauriak, noski. - 40. Erri zalapartariak, Kaspi itxas mendelean bizi ziranak.

Carmen XXXV

AD FORTUNAM

O Diva, gratum quae regis Antium,
Praesens vel imo tollere de gradu
Mortale corpus, vel superbos
Vertere funeribus triumphos:

5 Te pauper ambit sollicita prece
 Ruris colonus; te dominam aequoris,
 Quicumque Bithyna lacessit
 Carpathium pelagus carina.
 Te Dacus asper, te prOfugi Scythae,
 10 Urbesque, gentesque, et Latium ferOx,
 Regumque matres barbarorum et
 Purpurei metuunt tyranni,
 IniuriOsO ne pede proruas
 Stantem columnam, neu populus frequens
 15 Ad arma cessantes ad arma
 Concitet, imperiumque frangat.
 Te semper anteit saeva Necessitas,
 ClavOs trabales et cuneos manu
 Gestans aena, nec severus
 20 Uncus abest, liquidumque plumbum.
 Te Spes et albo rara Fides colit
 Velata panno; nec comitem abnegat,
 Utcumque mutata potentes
 veste domos inimica linquis.
 25 At volgus infidum et meretrix retro
 Periura cedit: diffugiunt cadis
 Cum faece siccatis amici
 Ferre iugum pariter dolosi.
 Serves iturum Caesarem in ultimos
 30 Orbis Britannos, et iuvenum recens
 Examen EOis timendum
 Partibus, Oceanoque rubrO,
 Eheu cicatricum et sceleris pudet
 Frantrumque. Quid nOs dura refugimus
 35 Aetas? quid intectum nefasti
 Liquimus? unde manum iuventus
 Metu Deorum continuit? quibus
 Pepercit aris? O utinam nova
 Incude diffingas retusum in
 40 Massagetas Arabasque ferrum.

PLOTI NUMIDA'RI

Gaia: Nu mida, Angu st'ekin batera iru urtez kantauritarren aurka gudukatu ondoren, etxera itzultzen da, Espaiña'tik. Ango poz-dirdi-

ra! Lagun ta adiskideak oro laztandu ta besarkatzen dute samurkiro. Eta batez ere, aren aurtzaroko lagun miña, Lami, ez titan, noski. Ondoren jaialdi ederra, soiñuz eta dantzaz ornitua. Noiz idatzi ote zun? J. K. aurretiko 25 edo 26'garren urtean; kantauritarren aurkako gudatik 24'garren urtean bait zan August itzuli.

Et ture et fidibus iuvat...

Lurrin-keetan nai ditut ta lira-ots biziz
ta zekor baten odol bearra ixuriz,
Numida'ren Urtzitar jagolak leun-azi.

Esperi urrunetik zoriz bait zaigu itzul,
5 t'orain laztanduz dabil lagunekin urgul;
Lami da biotz-bera txeratzen gogotik,
maixu bat-baten, mende aurtzaroa igaro
ta toga berdin alda zutela oroirik.

Ez bijoa egun au arri zuri gabe;
10 txangil lasterrari ez ipiñi neurrik,
Sail'tarren arauz ez oñak etsedenik;
Treiziar txol zapala txurrutatzen bikain,
Baso'ri Damali'k ez bein irabazi.
Ez bedi otoruntzan peitu arrosarik,
15 ez api bizikorrik, ez lili utsalik.

Damali'ri dizkie begiak orditsu
denak ezarriko, t'ez dio Damali'ri
iñortxOk erauziko maitale berria,
untzorri lizuna lez ari atxikia.

Oarrak. - 6. Adiskide au, Eli Lami dugu; lenengo liburuko XXVI'garren oda ere, ikusi gendunez, onitxi eskeiñia da. - 8. Adin berdiñekoak ziralako, erromatarren oitura zanez, aur-toga utzi ta erri-toga jantzi batera egin zuten; amasei-amazazpi urtetan egin oi zan aldakuntza au, Libera/ia deitu jaialdiz. - 9. Trazitarrak arri zuriz marratzen ornen zituten egun zoriontsuak, eta beltzez zoritxarrekoak. - 11. Salitarrak, marte gudu- jainkoaren apaizak zenitun.

Carmen XXXVI

AD PLOTIUM NUMIDAM

Et ture et fidibus iuvat
Placare et vituli sanguine debito
Custodes Numidae Deos,
Qui nunc, Hesperia sospes ab ultima,
5 Caris multa sodalibus,
Nulli plura tamen, dividit oscula,
Quam dulci Lamiae, memor
Actae non alio rege puertiae,
Mutataeque simul togae,
10 Cressa ne careat pulchra dies nota:
Neu promptae modus amphorae,
Neu morem in Salium sit requies pedum:
Neu mutil Damalis meri
Bassum Threicia vincat amystide:
15 Neu desint epulis rosae,
Neu vivax apium, neu breve lilium.
Omnes in Damalin putres
Deponent oculos: nec Damalis novo
Divelletur adultero,
20 Lascivis hederis ambitiosior.

XXXVII

NERE LAGUNERI

Gaia: Edan ta dantzatu, lagunak, dio Orati'k; len zoritxarpean geundela, etzan egoki orrelako jairik. Orain, bai, edan ta dantzatu pozik, zemaika zeunden odei beltzak urrutirazi bait dira. Izan ere, Aki' ren garaipenak alaitasuna zekarren bereiziki. Keleopatere arrOputzak gaiñez eraginda zeukan erria, bere zikituekin bat, erro-matarren egoanarria nunbait; baiña eratsia izan da aren ausardia. August'ek eraso zion, sapelaitzak usOari bezela, atxillotzeko asmoz; alare, azken dirdaitsuagoa gura zun: bere jauregiari begiratu bat emanik, suge pozOitsuz ozkatua il zan, bekandera ain argía izanik, apal eta erOria, garaitz-egunerako eraman ez zezaten.

Nunc est bibendum, nunc pede libero...

Edan Oraintxe, ta jo Orain, lagunak;
sorua oin-sarkin; oraintxe baita
Jainkoen oetzak Salitar jakiz
goxO apaintzekO garai txit auta.

5 Asaben sototfk len etzan aizu
Kekubo artzea; Kapitol bai zun
erregin eroak bere mendeko,
ta gizaki erkin saldo betekin,
oso ustetsu ta zori onez mozkorrik,
10 gure aginterri zabala ere
ondiko ta illetaz xeatu nairik.

Baiña, gutxitu zan aren sumiña
sutatik ontzi bat doi irtenik;
Kaisar'ek lot zion bildur biziaz
15 ardo zorakorrez kuin zan gogoa,
Itali'tik egaz zijOalarik,
-uso izua saiak edo erbia
eiztari ariñak Emon-zabaldi
elurtu zear lez-, arraunez ekin
20 ta mamutzar likits eriozkiña
gura izan zunean katepe atzi.

Ura orraitio, leiñuki il nairik,
ez zuen ezpatak eme antzo izu,
ezta etzan saia zOko ixillera
25 bere ontziakin azkarki ta u zu.
Lerden, sozko bizi so egíñkan
bere egoitz jausira, suge biurrak
asarrazi zituneden xurga-min;
are anker baitzan, iltzea etsiz
30 Ots, Liburni'tarran ontzi latzetan,
bera, andere ez-apal, edonor bai litza,
garaitz-arro ager zezaten murriz.

Oarrak. - 3. Salitar apaizen jan-edanak, Ots aundikoak ornen ziran, batez ere aoxuriz ta aundikiro ospatzen ziralako. - 6. Lati-lurraldean, Kekubo zeritzanean, ardo ona artu oi zan. - 7. Keleopaterre (Kleopatra), AigitO'ko erregiñak, Mark Antoni'rekin aituta, Erroma zuzitu nai izan zun. - 17. Emon edo Tesali, Grezi'ko zabaldia. -

27. KeleOpatere'k etsaien atz artean ez eOrtzearren, suge-edenez pOzOitu zun bere sOña; OrtarakO, bere aurka suge bat esarrazi naita, urrezkO ardatzez sakatu Ornen ziOn. - 30. Liburnitarrak, itxas-lapur bait ziran, Ontzi bizkOr latzak erabili Oi zituzten.

Carmen XXXVII

AD SODALES

Nunc est bibendum, nunc pede liberO
Plusanda tellus; nunc Saliaribus
Ornare pulvinar DeOrum
Tempus erat dapibus, SOdales.
5 Antehac nefas deprOmere Caecubum
Cellis evitis, dum CapitOlio
Regina dementes ruinas
Fumus et ImperiO parabat
CONTaminato cum grege turpium
10 MORbO virOrum, quidlibet impOtens
Sperare, fOrtunaque dolci
Ebria. Sed minuit furOrem
Vix una sOspes navis ac ignibus;
Mentemque lymphatam MareOticO
15 Redegit in veros timOres
Caesar, ab Italia vOlantem
Remis adurgens; accipiter velut
Molles cOlumbas, at lepOren citus
Venator in campis nivalis
20 HaemOníae; daret ut catenis
Fatale monstrum; quae generOsius
Perire quaerens, nec muliebriter
Expavit ensem, nec latentes
Classe cita reparavit oras;
25 AUSA est iacentem visere regiam
Vultu sereno, fOrtis et asperas
Tractare serpentes, ut atrum
CorpOre cOMBiberet venenum;
Deliberata mOrte ferociOr;
30 Saevis Liburnis scilicet invidens
Privata deduci superbo
NON humilis mulier triumphO.

XXXVIII

BERE OTSEIÑARI

Gala: Gauza arrunt zalea duzu Orati, ta ez zaio bat ere atsegin persitarren antzeko aundiferia; ez du nai larregikerizko ikusgarri ta gaiñerakorik.

Persicos odi, puer, adparatus...

Iguin ditut, otsein, Persitar apaindurak;
nazkagarri zaizkit koroe iraz eioak;
ez zazu azter nun edo lorez diteken
arrosa berandua.

5 Arduraz naukazu mirtu soilla ezertan
geitu ez dezazun otsein zaitudan orrek
on duzu mirtua; baita nik ere, lasai,
edan arren mats-pean.

Oarrak. - 1. Persitarrak oso emanak ziran atsegin eta aragi-irritseri, ta olako jaialdi ospetsuetan batez ere buruntza antzez eio, usaiki ta igurtziki ta abar, oparo erabili oi zuten. - 5. Mirtu edo arraia, zugatz txiki ezea, gure mendietan ere, Araba'n bereziki, aurkitzen dana.

Carmen XXXVIII

AD PUERUM

Persicos odi, puer, adparatus;
Displicent nexae philyra coronae;
Mitte sectari, rosa quo locorum
Sera moretur.

5 Simplici myrto nihil adlabores
Sedulus curae; neque te ministrum
Dedecet myrtus, neque me sub a rta
Vite bibentem.